

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA

Kudeaketa Ekonomikoa

- Hezkuntza-itunak
- Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak
- Garraiatzeko banan banako diru-laguntzak 2013-2014

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza

- Hezkuntza laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxeei emateko diru laguntzen deialdia.
- Hezkuntza premia berezietako ikasleentzako eskola garraiorako banakako diru laguntzak.
- Laguntzak Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarreentzat eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarreentzat.
- Laguntzak unibertsitatez besteko ikasleen guraso-elkarreentzat federazio eta konfederazioentzat.
- Laguntzak unibertsitateaz besteko ikastetxeak euren titularitatearen pean dituzten irakaskuntza-kooperatibentzat.
- Laguntzak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jarraitu edo hasi nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat. Helburua: ijito ikasleentzako hezkuntza-jarduerak garatzea eskola-esparruan.
- Laguntzak EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeentzat, hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko 2014-2015, 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetarako.
- Laguntzak, 2014-2015 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programak garatzekoak.
- Laguntzak itunpeko sareko ikastetxeentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakunde eta federazioentzat, 2014-2015 ikasturtean parte har dezaten baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko sare_hezkuntza Gelan izeneko berrikuntza-proiektuan.
- Ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntzak.



- Atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko plazak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat.
- Nolega deialdi bateratua 2014-15.
- Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterial inprimatuentzako laguntza-bidea (EIMA 1).
- Unibertsitate aurreko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial digitalak diruz laguntzako programa (EIMA 2.0).
- Unibertsitate aurreko euskarazko ikasmaterialak sortzeko edota egokitzeko laguntza-bidea (EIMA 4).
- 2014ko udan eta 2014-2015 ikasturtean Irale programaren barnean Sailaz kanpoko eragileez bideratu diren ekintzetan parte hartzeko deialdia.
- IRALE programaren baitan 2014. urtean irakastordu barneko ikastaroren batean jarduteko irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoentzako laguntzetarako dei egiten duena.
- Ulibarri hizkuntza normalkuntzarako proiektua. -13-14 deialdiaren bigarren zatia eta 14-15 deialdiaren lehen zatia ordaintzekoa.
- Irakasleen etengabeko prestakuntzarako plana: Erakundeentzako deialdia, Prest_Gara 2014-15 (erakundeentzako diru-laguntzak)
- 2014an irakasleentzako jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako deialdia.
- Irakasleen prestakuntzarako plana – prestakuntza / berrikuntza proiektuak itunpeko ikastetxeetan 2014-2015.
- Irakasleen prestakuntzarako plana – itunpeko sarean, 2014-2015 ikasturtean, proiektu batik bat hirueledunak (eta eleaniztunak) eta, proiektu horiei lotuta, irakasleentzako atzerriko hizkuntzako prestakuntza.

Ikastetxeak

- 2014-2015 Ikasturterako laguntzak, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat.
- 2014-15 Ikasturterako laguntzak, zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzat.
- Helduen hezkuntzaren alorrean jarduerak garatzen dituzten eta irabazi-asmorik gabekoak diren erakundeei diru-laguntzak.
- Musika-ikastegientzako diru-laguntzak.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduentzako diru-laguntzak.



Heziketa eta Ikaskuntza

- Laguntza ekonomikoak lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeentzat, prestakuntza-proiektuak egiteko.
- Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide-heziketako heziketa-zikloak irakasteko, eskaintza partzialaren modalitatean.
- Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide-heziketako heziketa-zikloen sarrera-probak prestatzeko ikastaroak emateko.
- Laguntzak, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzeko azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuan aurreikusitakoak.
- Diru-languntzak Udalei, Mankomunitateei edota horiek sortutako Erakundeei eta Erakunde pribatuei zuzenduak 2º mailako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak emateko eta 1º mailan Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak garatzeko. Azken programa hauek aurrekoak ordezkutzen dituzte aurtengoz.

Zientzia Politika

- Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko Doktoratu Aurreko Programako laguntzak.
- Ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobenkuntza-programarako laguntzak.
- Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesgarriak diren gaitan, atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko beken berriztapena.
- Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-Aurreko Programako Bekak Aplikatzeko Zentroez Bestelakoetan Egonaldiak.
- Kongresuak eta Zientzia-Bilerak egiteko Laguntzak
- Ikertzaileentzako Mugikortasun Programa
- Oinarrizko edo/ta Aplikatutako Ikerketa Proiektuak eta Lankidetzazko Proiektuak.
- Unibertsitate-Enpresa Proiektuak
- Ekipamendu Zientifikoak.
- Euskadi Ikerketa Saria
- Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteei emateko laguntzak (BERC Programa).

Unibertsitatea

- Beka orokorrak
- 2013-2014 ikasturterako lankidetzak beka
- Nazioarteko unibertsitate mugikortasunerako beka

Kultura Ondarea

- Material Arkeologikoen Inbentarioa
- Museoak eta Bildumak
- Artxibo Publikoak
- Artxibo Pribatuak
- Liburutegietako Liburu-Funtsak
- Liburutegietan Teknologia Berriak
- Liburutegietan Erabilera Sustatu

Kultura Sustatu

- Musika
- Dantza
- Ikus-entzunezkoa
- Antzerki Profesionalen Prestakuntza
- Antzokietan Egoitza Proiektuak
- Kale Antzerkia Bultzatuz
- Antzerki-Produkzioa
- Arte Plastikoak
- Gure Artea Sariak
- Literatura Argitalpenak
- Euskadi Literatura Sariak
- Jaialdiak
- Kultura Sorkuntza
- Sormen Lantegiak

Gazteria eta Kirola

- Gazteria Arloan Egitarauak
- Gazteen Arteko Elkartrukaketa
- Gazte-Ekipamenduen Sarea
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan Proiektuak
- Kirol Federazioen Programak
- Kirol Lehiaketetan Parte-hartzea
- Kirol Lehiaketen Antolaketa

HH.AA-etan Hizkuntza Normalizatu

- Euskara Toki-Erakundeetan (EBPN/ESEP)

Euskara Sustatu

- Euskara Gizarte-Bizitzan (EUSKALGINTZA)
- Euskara Hedabideetan (HEDABIDEAK)
- Euskara Gaztelaniazko Hedabideetan

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioa

- Euskara Teknologia Berrietan (IKT)
- Euskara Entitate Pribatuetan (LANHITZ)

1.- Izenburua

HEZKUNTZA- ITUNAK

2.- Araua

Irailaren 8ko 293/87 Dekretua, Hezkuntza- Itunei buruzko Araudia onartuz.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

- Doako oinarrizko hezkuntza ziurtatzea.
- Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza sartzen erraztea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Unitate itunduak:

<u>Ikasgelak</u>	<u>2014</u> <u>Indikadoreak</u>	<u>2014 urtarrila-</u> <u>abuztua</u>	<u>2014 iraila-</u> <u>abendua</u>
Haur hezkuntza 2. Zizloa		1.272	1.273
Lehen mailako hezkuntza		2.538	2.548
Hezkuntza berezia 1 HI		218	220
Hezkuntza berezia 2 HI		99	100
GUZTIRA	4.127	4.127	4.141
DBH 1. Zikloa		828	835
DBH 2. Zikloa		798	808
Batxilergoa		519	514
Erdi-Mailako heziketa-Zikloa		237	236
Goi-Mailako heziketa-Zikloa		420	421
GUZTIRA	2.794	2.802	2.814
H. berariaz sendotzeko proiektua		33	34
H. berariaz sendotzeko proiektua (Erdia)		84 (*)	82 (*)
GUZTIRA	75	75	75
Curriculum- aniztasuna	53	53	52
Hasierako lanbide prestakuntzako progr.	64	65	33
Hezkuntza berezia 1 DBH		213	214
Zereginak ikastea		21	21
GUZTIRA	234	234	234
GUZTIZKOAK	7.347	7.356	7.349

(*) H. berariaz sendotzeko proiektuak (Erdiak) biren artean zatitzen dira eta osorik bijurtzen dira 2014ko ekitaldirako onaturiko aurrekontua 562.334.500,00 €koa zen. Diru-laguntzaren beharretara ondo egokitzen delarik.

1.- Izenburua

UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA LAGUNTZAK

2.- Araua

- AGINDUA, 2013ko urriaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2013-2014 ikasturteko deialdia egiten duena. EHAA 201zk. 13/10/21.
- AGINDUA, 2014ko urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2014-2015 ikasturteko deialdia egiten duena. EHAA 205zk. 14/10/28.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Dauden muga edo desorekak berdintzera bideratutako neurriak hartzea hezkuntzara berdintasun egoeran iritsi ahal izateko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2013/2014 ikasturteko deialdiaren onuradunak: 124.868 unibertsitateaz kanpoko ikasleak. (Aurreikusia: 121.167).

	Aurreikusia 2014	Ebazpena
Banakapena		2013/2014 ikasturtea
Ikasmateriala		122.333 laguntza
Irakaskuntza		2.142 laguntza
Joan-etorriak eta egoitza		2.638 laguntza
Jantokia		<u>59.268 laguntza</u>
	<hr style="width: 20%; margin: auto;"/>	
	180.694 laguntza	186.381 laguntza

2014ko ekitaldiko aurrekontu osoa erabili da: alde batetik, 2013-2014 ikasturteko deialdiko zati bat finantzatzeko eta, bestetik, 2014-2015 ikasturteko deialdiko beste zati bat.

2014-2015 ikasturteko deialdia bukatu gabe dago. Arabako lurraldeko zati txiki bat ebatzi eta finantzatu da 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren kontura, eta ebatzi gabe dagoena 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren kargura finantzatuko da.

1.- Izenburua

GARRAIATZEKO BANAN BANAKO DIRU-LAGUNTZAK 2013-2014

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko azaroaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleak eskolara garraiatzeko banan banako diru-laguntzetarako 2013/2014 ikasturteko deialdia egiten duena. (EHAA 238/2013.12.16)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Sailak antolatutako eskola-garraio zerbitzura egokitzen ez diren eta garraiatzeko eskubidea duten sare publikoko ikasleen eskola-garraioa diruz laguntzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontuaren %82 gauzatu da. 2014ko aurrekontu-ekitaldiko behin betiko datuak honako hauek dira:

Emandako diru-laguntzen kopurua: 2.020. (Aurrekusitako laguntzak: 2.350)

Emandako diru-laguntzaren batez bestekoa: 405,42 €

1.- Izenburua

HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK KONTRATATU BEHAR DITUZTEN ITUNPEKO IKASTETXEEI EMATEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA.

2.- Araua

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko ekainaren 26ko AGINDUA, hezkuntza-premia berezietako ikasleak eskolatan dituzten eta 2013-2014ko ikasturterako Hezkuntza Laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei emateko diru-laguntzak deitzen dituen (2013ko uztailaren 9ko EHAA).

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren 2014ko otsailaren 6ko EBAZPENA (2014ko otsailaren 21eko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hezkuntza Laguntzako pertsonal espezialista hori itunpeko ikastetxe pribatuetan egotea ezinbestekoa da, elbarritasun fisiko, psikiko edo mugitzekoei, batez ere, lotutako hezkuntza-premia berezietako ikasleei behar bezalako hezkuntza-erantzun bat emateko, autonomia pertsonalari lotutako programak aplikatzeko eta berorien jarraipena egiteko eta ikasle horiek ikastetxera eta curriculumera iritsiko direla bermatzeko. Ikastetxe publikoetan aparteko baliabide horren premia baldin badago, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lan-legepeko Hezkuntza Laguntzako pertsonal espezialistak betetzen ditu premia horiek.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

IKASTURTEA	09/10	10/11	11/12	12/13	13/14
Lanpostuen kopurua	507*	500*	523*	523*	539*
Diruz lagundutako ikastetxeen kopurua	201	201	201	200	200
Arreta eman zaien ikasleen kopurua	811	850	1.011	1.084	1.242

2013/2014ko ikasturtean, 2014ko aurrekontuaren kontura, 200 itunpeko ikastetxeri lagundu zaie diruz, berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkularitzek emandako txostenen arabera Hezkuntza Laguntzako espezialistaren baliabidea behar duten 1.242 hezkuntza-premia berezietako ikasleri eman beharreko hezkuntza-erantzunean parte hartzen duten 539 Hezkuntza Laguntzako espezialista kontratatzeko. Hezkuntza Laguntzako espezialisten hornikuntza ezinbestekoa da ikasle horiek eskolatzeko.

* 539 profesional horiek 35, 25, 20, 15 eta 10 orduko asteko lanaldiak izan ditzakete. Horregatik, asteko lanaldia 25 ordukoa dela pentsatuta, Hezkuntza Laguntzako espezialisten kopurua 476koa izango litzateke.



Magnitudeak		Emaizak	
Lanpustuen guztizkoa	539	Lanpostuen guztizkoa	539
Ikastetxeen guztizkoa	200	Ikastetxeen guztizkoa	200
Ikasleen guztizkoa	1.242	Ikasleen guztizkoa	1.242



1.- Izenburua

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIETAKO IKASLEENTZAKO ESKOLA GARRAIORAKO BANAKAKO DIRU LAGUNTZAK

2.- Araua

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2013ko abenduaren 18ko AGINDUA, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak deitzen dituen (2013ko abenduaren 30eko EHAA).

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2014ko martxoaren 3ko EBAZPENA (2014ko martxoaren 19ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ohiko eskola-garraioa erabili ezin duten eta ikastetxe publikoetan eskolatuta dauden ikasle elbarrituei ematen zaie baliabide honen bidez arreta. Halaber, Lurralde Ordezkaritzek espresuki adierazitako itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden ikasle elbarrituei ematen zaie arreta, ikasle horiek bizi diren zonaldean haien premia berezietara egokitutako ikastetxe publikoetan eskolatzeko aukerarik ez badute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2013/14ko ikasturterako diru-laguntza hauek eman dira:

Arabara : 219.852,33 €

Bizkaian: 1.211.998,01 €

Gipuzkoan: 713.187,29 €

13/14ko ikasturtean 119 ikastetxeri eman zaizkie diru-laguntzak, hezkuntza-premia bereziak eta elbarritasun-ziurtagiria dituzten 782 ikasle eramateko. Ikasle horiek ezin dute ikastetxeak antolatzen duen ohiko garraioa erabili eta banaketa hau egin da, sare eta lurraldeen arabera:

	Ikastetxe publikoak	Itunpeko ikastetxeak	Ikastetxeen guztizkoa	Sare publikoko ikasleak	Itunpeko sareko ikasleak	Ikasleen guztizkoa
Araba	14	1	15	49	2	51
Bizkaia	60	10	70	206	246	452
Gipuzkoa	27	7	34	118	161	279
EAE	101	18	119	373	409	782

Magnitudes Programa Presupuestario		Emaidzak	
Ikastetxeen guztizkoa	127	Ikastetxeen guztizkoa	119
Ikasleen guztizkoa	757	Ikasleen guztizkoa	782



1.- Izenburua

LAGUNTZAK HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ELKARTEENTZAT ETA UNIBERTSITATE-MAILAKOAK EZ DIREN IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASO-ELKARTEENTZAT.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzetarako deia egiten duena.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 31koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteentzako laguntzak ematen dituena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da bertan sartuta dauden gizarteko sektore guztien parte-hartzea eta haien guztien laguntza, ezarrita dituen helburuak lortuko baditu. Heziketa integrala lortzeko, irakaskuntza arautuak behar-beharrezkoa du jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko ekintzak gauzatzea. Eta hori parte-hartzearekin bakarrik lortzen da, hala helduen hezkuntzako ikasleenarekin nola adin txikiko ikasleen gurasoenarekin, indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera eraturako elkarten bitartez. Parte-hartze horrek, ordea, gastu handiak eragiten dizkiete legeak ezarritakoaren arabera eraturako erakunde guztiei, eta, beraz, sistemak berak lagundu egin behar die partaidetza hori gauza dadin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urterako helburua 598 diru-laguntzetan finkatua zegoen. 2014ko deialdian, 556 laguntza eman zitzaizkien erkidegoko ikasleen guraso-elkarteei eta ikasle-elkarteei. Ikasleen gurasoen eta ikasleen 556 elkarte horietatik, 72 izan ziren Arabako ikasleen gurasoen eta ikasleen elkarteentzat, 282 Bizkaikoentzat, eta 202 Gipuzkoakoentzat. Deialdi honetarako, 500.000 euro izendatu ziren, guztira. Ebazpenaren azken zenbatekoak 499.657 euro jo zuen.

Deialdi honetan, 6.000.000 eurotik gorako laguntzak eskatu zituzten erakundeek. Laguntza horien bitartez, eskolaz kanpoko jarduerak egin dituzte seme-alabentzat, edo, Helduen Hezkuntzaren kasuan, elkartekideentzak eurentzat. Hartara, gurasoek eta Helduen Hezkuntzako ikasleek ikastetxearen bizitzan parte hartzea lortu da, laguntza-deialdiarekin erdietsi nahi ziren helburuak lortzen lagunduta.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK UNIBERTSITATEZ BESTEKO IKASLEEN GURASO-ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOENTZAT

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, ikasleen guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako – unibertsitatez kanpokoentzako– laguntzetarako deia egiten duena.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 7koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak emateko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikasleen guraso-elkarteen federazioak eta konfederazioak funtsezko elementu dira gurasoen parte-hartzea garatu eta sustatzeko; hain zuzen ere, guraso-elkarteen eskumena eta ekimena iristen ez diren mailetan. Federazioak ikasleen guraso-elkarteen arteko bilgune izaki, eta konfederazioak federazioena, interes berberekin guztiak ere, elkarte horiek bultzatutako proiektuak garatzea garrantzizko elementu bat da hezkuntza-helburuak lortzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urterako helburua elkarte-erakundeen federazioen eta konfederazioen artean 17 diru-laguntzetan finkatu zen. 2014ko deialdian 14 laguntza banatu ziren elkarte-erakundeen federazioen eta konfederazioen artean (bi dira konfederazioak). Federazio eta konfederazioentzako 15 laguntza horietatik:

- 2 konfederazio Bizkaikoak dira
- Lurralde-federazioei dagokienez, 1 Bizkaikoa da, 1 Gipuzkoakoa eta 1 Arabakoa.
- "Beste federazio batzuk" atalean, 5 federazio Bizkaikoak diraa, 3 Gipuzkoakoak eta 1 Arabakoa.

Deialdi honetarako, 350.000 euro izendatu ziren, guztira. Deialdi honetan, 1.177.317,68 euroko laguntzak eskatu zituzten guztira erakundeek.

Laguntza horien bitartez, erakunde horiek aholkularitza- eta laguntza-jarduerak egin dituzte guraso-elkarteen alde, eta prestakuntza-jarduerak gurasoentzat, besteak beste. Hartara, gurasoek ikastetxearen eta bertako elkarten bizitzan parte hartzea lortu da, laguntza-deialdiarekin erdietsi nahi ziren helburuak lortzen lagunduta.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK UNIBERTSITATEAZ BESTEKO IKASTETXEAK EUREN TITULARITATEAREN PEAN DITUZTEN IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBENTZAT

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitateaz besteko irakaskuntza-kooperatibentzako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2014ko irailaren 22koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, unibertsitateaz besteko irakaskuntza-kooperatibei diru-laguntzak emateko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Indarreko legeriaren esparruan, kooperatiba-erregimenean eratutako ikastetxeei arreta berezia eskaintzen zaie, gizarte-interesa baitute. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz besteko mailetako ikasleentzako hezkuntza-jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak abiarazten laguntzea arrazoizko ikusten da. Jarduera horiek ikasleen gurasoek antolatuko dituzte, irakaskuntza-kooperatibetan bilduta eta behar den erregistroan hala inskribatuta.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urterako helburua 47 diru-laguntzetan finkatu zen. 2014ko deialdian 51 laguntza banatu ziren erkidegoko kooperatiben artean. Kooperatibentzako 51 laguntza horietatik, 6 izan ziren Arabako kooperatibentzat, 24 Bizkaikoentzat, eta 21 Gipuzkoakoentzat. Deialdi horrek 33.000 euro hartu bazituen ere, ebazpenaren azken zenbatekoak, arauak berak hala aginduta —erakunde batek ere ezin zuelako jaso eskatu baino gehiago—, 32.999 euro jo zituen. Deialdi honetan, 1.200.000 eurotik gorako laguntzak eskatu zituzten erakundeek. Laguntzen bidez, beraz, erakunde horiek eskolaz kanpoko jarduerak prestatu dituzte seme-alabentzat. Hartara, gurasoek ikastetxearen bizitzan parte hartzea lortu da, laguntza-deialdiarekin erdietsi nahi ziren helburuak lortzen lagunduta. Ondorengo hartu dira kontuan deialdi honetarako:

- Diru-laguntzen iturria, garrantzizkoa izanik ere, erakunde horien jarduera ahalbidetzen duten sarreretako bat baino ez da.
- Kooperatibek askotarikoa jarduerak egiten dituzte gurasoen prestakuntzarako eta ikasleen curriculum osatzeko; haien artean aipa daitezke kirol-hastapeneko ikastaroak, inteligentzia emozionalekoak, gatazkak konpontzeari buruzkoak, eskola-jaiak, lehiaketak, eta abar..., guztiak ere diruz laguntzeko modukoak.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREKIN LANKIDETZAN JARRAITU EDO HASI NAHI DUTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEENTZAT. HELBURUA: IJITO IKASLEENTZAKO HEZKUNTZA-JARDUERAK GARATZEA ESKOLA-ESPARRUAN

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei dei egiteko dena, eskola-esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 23koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinen bidez irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi laguntzak ematen baitzaizkie, hain zuzen ere, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2014-2015 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lankidetzan jardun nahi dutenei.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Lehen Hezkuntza gainditzen duten ijito ikasleen ehunekoa egonkortuta dago EAeko ikasleen batez bestekoaren oso azpitik; Bigarren Hezkuntzan, berriz, gorakadaxoa ikusten da, baina kontuan hartu behar da azken kolektibo horren abiapuntuek eta aurreko erreferentziek hutsaren hurrengo arrakasta erakusten dutela etapa horretan. Ikusten denez, gainera, Lehen Hezkuntzatik Bigarreneara igarotzeko unea heltzean, ikasle askok era guztietako zailtasunak izaten dituzte ikastetxeetara joateko. Ijito elkarteek egindako lana, guztiek ere ez baitute inplikazio-maila bera, ikastetxeen proposamenen arabera da, eta ondoren aipatzen direnen moduko hezkuntza-jarduerak hartzen ditu barnean:

- Gelaren barruko esku-hartzea: ikasleek klaseko martxa jarrai dezaten lagundu; irakasleekin batera jardun lanean heziketa fisiko, musika, plastika eta matematika eskolen garapenean, eta elkarreraginezko taldeetan parte hartzen.
- Ijito ikasleek ikastetxeko jardueratan parte-hartzea bultzatu: Indartze, Orientazio eta Laguntza Programan, eskolako liburutegian eta ikastetxeko eskolaz kanpoko jardueretan, jaietan, irtenaldietan, 21 Agendan, euskararen astean eta kulturen arteko astean.
- Tutoreekin lankidetzan aritzea tutoretzan, hainbat tutoretza-saio antolatuta zenbait gai aintzat hartuta: bigarren hezkuntzara igarotzea, eskola-ohiturak, ikasteko motibazioa, gatazkak maneiatu eta konpontzea; banakako tutoretzak eta taldeko tutoretzak, ijito ikasleen zailtasun edo kezka komunak jorratzeko, berdinen arteko auto-indartzea bultzatuta.
- Ijito familietara hurbiltzea, ikastetxearekiko harremanak errazte aldera: elkarrizketa informalak sarrera-irteeretan, elkarrizketak ikastetxean, bilerak irakasleekin, etxeetara, azoketara eta plazetara bisitan joan...



- Familiak animatzea ikastetxeko jardueretan parte har dezaten: ikasturte-hasierako bilerak, noten buletinak entregatzea, Eskola Kontseilurako hauteskundeak, guraso-elkartean parte hartzea, bileretan parte hartzea (orokorrak, guraso-elkartearnak, Eskola Kontseiluarenak...)
- Ijito Herria ikusarazteko ekintzak antolatu ikastetxean: azaroaren 16aren inguruko jaiak (Ijito Herriaren eguna Euskal Autonomia Erkidegoan) eta apirilaren 8aren ingurukoak (Ijito Herriaren nazioarteko eguna), kulturen arteko jarduerak ikastetxean (jaiak, asteak, tailerrak...) edo ikasgelan, eta ijito erreferenteak hurbilaraztea.
- Jarduerak antolatzea jantokian eta jolasgaraian: jolas kooperatiboak, ipuin-tailerra, antzerki-tailerra, irakurtzen animatzeko jarduerak, ikasketak indartzeko jolasak, eskola-errefortzuak, informatika-gelak.
- Ikastetxeko proiektuetan lankide: kulturen arteko dinamizazioa, bizikidetzaren behatokia, batzorde mistoak eta ikasteko komunitateak.

Erakundeen esku-hartze lana koordinazioan egiten da berritzeguneetako erreferenteekin eta Ijito Ikasleak Eskolatzeko Hobekuntza Taldearekin, aniztasunaren arduradunaren eta Jarraipen Batzordearen begiradaren pean, eta jarraipena eta balorazioa dokumentuetan geratzen dira jasota.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014rako helburuekin bat eginik, eskola-esparruan, 3 elkartek lan egin dute ikasleei zuzendutako jardueretan.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK EAEKO HAUR HEZKUNTZAKO, LEHEN HEZKUNTZAKO ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO ITUNPEKO IKASTETXEENTZAT, HEZKIDETZA ETA GENERO-INDARKERIAREN PREBENTZIOA LANTZEKO JARDUERA-PROIEKTUAK EGITEA ESKATZEKO 2014-2015, 2015-2016 ETA 2016-2017 IKASTURTEETARAKO

2.- Araua

AGINDUA, urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita ireki dela deialdia, EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeek jarduera-proiektuak egiteko eskabideak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko 2014-2015, 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan.

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 11ekoa, Hezkuntza sailburuordearena, zeinaren bidez aukeratzen dira, EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeek jarduera proiektuak egin ditzaten, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko 2014-2015, 2015-2016 eta 2016-2017 ikasturteetan.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Genero-indarkeria da sexismoan eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritutako sistema baten ondorio larriena. Eskolak ikasleen arteko botere-harremanak aldatzen lagundu dezake, behar diren aldaketak eginez, berdintasunean oinarritutako harremanen bidezko sozializazioa ziurtatzeko. Sozializazio horrek identitate-aniztasuna errespetatu behar du, eta ikasle guztien garapen pertsonala ahalbidetu behar du, nola neskena, hala mutilena.

Eskola-eredu mistotik hezkidetzailera igarotzeko eraldaketa-prozesua sustatu nahi da, genero-indarkeria eta sexismoan oinarritutako indarkeria-adierazpen oro prebenitzen lagunduko duena. Horretarako, "Hezkuntza Sistemaren Hezkidetza eta Genero Indarkeriaren Prebentzioa Lantzeko Gida Plana" egin da. Hau dugu planaren helburuetako bat: ikastetxeek beren kulturaren, politiketan eta jardunbideetan genero-ikuspegia txerta dezaten sustatzea, eskola-komunitateko eragile guztien laguntzaz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetarako helburua 50 ikastetxeetan jarri zen. Gaur egun, EAEko 32 itunpeko ikastetxe ari dira jarduera-proiektuak garatzen, hezkidetzari eta genero-indarkeriaren prebentzioari ekiteko. Horretarako, 64.000 euro jarri dira, guztira: ikastetxeko 2.000 euro. Deialdiaren dotazio ekonomikoa 100.000 euro da.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK, 2014-2015 IKASTURTEAN ESKOLATZE OSAGARRIKO PROGRAMAK GARATZEKOAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko irailaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014-2015 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programak garatzeko laguntzetarako deia egiten duena.

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, 2014-2015 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programak garatzeko diru-laguntzak emateko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da hezkuntza-erantzuna ematea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei, eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan. Eskolatzeko Osagarriko Programen hartzaileak heziketa-prozesuan berariazko laguntza behar duten ikasleak dira. Izan ere, ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historialean oinarritzen dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak. Programa horiek zuzenean ezar ditzake hezkuntza-administrazioak edo, bestela, hezkuntzan esku hartzen duten beste erakunde eta entitateekin lankidetzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak har ditzakete aldi baterako, Hezkuntzari laguntzeko zerbitzuei jarraituz, baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean hartutako neurriak nahikoak izan ez badira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien aurrean erantzuteko bide arrunt eta aparteko guztiak agortu ondoren eta zailtasun sozial bereziak edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei edota ikasleen kolektiboei erantzutearren, berariazko tratamendu bat hartu ahal izango da aparteko izaeraz, hain zuzen ere, hamalau urte baino gehiagoko eta hamasei urte baino gutxiagoko ikasleei zuzendutako eskolatzeko-programa osagarrien bidez. Segida ematen zaio aurreko ikasturteetan ere eman delako taldeentzako diru-laguntza jarduera horretan ari zitezen. Hartara, 2014-15 ikasturtean, 21 talderentzat egin zen laguntza-deia, 1.202.450 euroko guztizko kopuruarekin: 22 programa aurkeztu ziren. Haietako bat kanpoan gelditu zen, ez batzitu en betetzen deialdiaren irizpideak. Gainerako 21 taldeei eman zitzaizen programetarako diru-laguntza. Diru-laguntza jaso zuten 21 talde hauek 2014rako ezarritako helburuekin bat datoz. Gehieneko diru kopurua proiektuko 57.259 euro izan zen. Programa horiek oso emaitza onak eduki dituzte, aurreko deialdien memorietatik ondorioztatzen denez.



1.- Izenburua

LAGUNTZAK ITUNPEKO SAREKO IKASTETXEENTZAT ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAUDEN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEEKIN ESTATUTU-ZEIN ERREGELAMENDU-HARREMANAK DITUZTEN ERAKUNDE ETA FEDERAZIOENTZAT, 2014-2015 IKASTURTEAN PARTE HAR DEZATEN BALIABIDE DIGITALEKIN IRAKASTEKO ETA IKASTEKO SARE_HEZKUNTZA GELAN IZENENKO BERRIKUNTZA-PROIEKTUAN

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 15ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, dei egiten zaie itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, 2014-2015 ikasturtean parte har dezaten baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntza-proiektuan.

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, itunpeko sareko ikastetxeei eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakundeei eta federazioei, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntzako proiektuan parte har dezaten diru-laguntzak emateko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Gizartean izandako aldaketa eta aurrerapenak eta gizartearen eskura jarri diren baliabide digitaletan ekarri dute hezkuntzaren alorrean ere sartzeari garrantzia berak ohiko jarduerak guztietan erabiltzen dituen bitarteko berriak. Hainbat programaren bidez sartu dira pixkanaka IKTak gure ikastetxeetan; esaterako, Eskola 2.0.ren bidez. Une honetan, sare eta gailu digitalak erabili nahi dira aldaketa pedagogikoa zein metodologikoa sustatzeko. Baliabide teknologikoen erabilera ikasketa-eritmo desberdinetara egokitzen laguntzen du, berdinen arteko ikasketa bultzatzen, ikasten ikasteko gaitasuna indartzen eta gelaren espazio fisiko eta denborazkoa zabaltzen ikasketarako ingurune birtual eta nonahikora. Horrez gain, hezkuntza-plataforma digitalen bidez, ikasgela kanpoaldera zabaltzen da eta ikasleek eta haien familiekin edozein unetan izan ditzakete baliabide gehiago, eduki analogikoen mende soilik zertan egon gabe. Horri guztiari bide emateko, pixkanaka hurbildu beharra dago baliabide digitalen errealitate berrira (baliabide metodologikoak eta tresnak) irakasteko eta ikasteko prozesuan.

Ikastetxeei bultzada eman nahi zaie zenbait proposamen pedagogiko esplora ditzaten eta garatzen jarrai dezaten, eta, alde horretatik, 174/2012 Dekretua da proposamen horien oinarrietako bat. Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak zehazten du dekretu horrek, eta titulartasun publiko nahiz pribatuko zentroetan aplikatzen da.



Gaitasun digitalen esparrua oso dinamikoa da, eta, beraz, ikastetxe aitzindariak bultzatu, lagundu eta ikusarazteko unea da orain, eta Sare_Hezkuntza izeneko lehendabiziko ikastetxe-sarea sortzeko, eta, horrela, sare horren bilakaera eredu bihurtu eta beste ikastetxe batzuei hobetzeko bideak erakutsi ahal izateko.

Ikasketarako eta jakintzarako teknologiak erabiltzeko, beharrezkoa da hezkuntza-baliabide digitalak bilatu, hautatu eta erabiltzea; dagokion ikasturteko programazio didaktikoa osatzen duten ikasketa-jarduerak aurrera eramatea erraztuko duten baliabide digitalak, hain zuzen. Proiektu honek eskatzen du ikasleekin egiten diren hezkuntza-prozesuak aldatzea. Horretarako, Ikasketarako eta Jakintzarako teknologiak jarriko dira ikastetxeen eskura, baliabide horiek erabil ditzaten. Eta horren osagarri, irakasleak prestatzeko zenbait jarduera egingo dira, banaka zein taldean, teknologia horiek erabiltzeko eta curriculumean ezartzeko beharrezkoak diren ezaguerak eta trebetasunak eskura ditzaten.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean 2014. urterako helburua 40 ikastetxeetan ezarri zen. 2014-2015 deialdian 13 laguntza eman ziren, eta 97 ikastetxetara iritsi ziren. Emandako 13 laguntza horietatik, 1 Arabara joan zen, 10 Bizkaira eta 2 Gipuzkoara. Deialdi honetarako, 305.000 euro izendatu ziren, guztira. Laguntza horien bitartez, Ikasketarako eta Jakintzarako teknologiak aplikatu ahal izan dituzte ikastetxe horiek, bai eta irakasleak prestatzeko zenbait jarduera egin ere, banaka zein taldean, teknologia horiek erabiltzeko eta curriculumean ezartzeko beharrezkoak diren ezaguerak eta trebetasunak eskura ditzaten.

1.- Izenburua

IKASLE ETORKINENTZAT KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMAK ETA IKASLE SARTU BERRIEN HIZKUNTZA SENDOTZEKO PROGRAMAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzetarako deia egiten da ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko (EHAA 2013/11/04).

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 7koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena. Honen bidez, ikasle etorkinentzat kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko 2013-2014 ikasturteko deialdia ebazten da (EHAA 2014/03/20).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikastetxeei emango zaizkien diru-laguntzen erregimena arautzea da agindu honen xedea. Diru-laguntza horiek ikastetxeen kulturarteko ikuspegia koordinatzeko eta hasi berri diren ikasle etorkinentzat hizkuntza indartzeko programak egiteko dira, baldin eta komunikatzeko gabezia handiak badituzte Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak ez jakiteagatik, eta, beraz, 2013-2014 ikasturtean hizkuntza indartzeko plan bat behar badute.

Deialdi honen onuradun izan daitezke Lehen edo/eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan itundutako unitateak dituzten ikastetxe pribatuak, eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak garatzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntzak jasotzen dituzten ikastetxeak. Ikastetxe horiek guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute, eta 7. artikuluan deskribatzen diren jarduerak, diruz lagun daitezkeenak, egin behar dituzte.

Diruz lagunduko dira:

- a) Lehen hezkuntzan eta/edo bigarren hezkuntzan hezkuntza-itunak dituzten ikastetxeetan kulturartekotasuna sustatzeko programak sortu, zuzendu eta kudeatzeko jarduerak. Ikastetxe horiek 6 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat matrikula-ildo bat baino gehiago izan behar dute eta etorkinen portzentajea %17koa baino handiagoa izan behar du eskabideak aurkezteko epea amaitzean. Baliabide hau hiru urtez edo gehiagor erabili duten ikastetxeak kanpoan geratuko dira.
- b) Ikasle etorri berrien hizkuntza sendotzeko ekintzak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Emandako diru-kopuru osoa: 1.299.486€.

Aurrekontu programako magnitudeak hauexek dira:

- 1.- Itunpeko sareko errefortzu-kopurua (98).
- 2.- Ikastetxearen kultura arteko ikuspegiaren koordinatzaileak (4).

Guztira, 2 ikastetxek (eta, beraz, 2 koordinatzailek) kulturartekotasuna sustatzeko dirulaguntza jaso zuten (2. magnitudea), eta 97 ikastetxek ikasle sartu berrien hizkuntza sendotzeko programak garatzeko dirulaguntza 1. magnitudea).

1.- Izenburua

ATZERRIAN ALEMANEKO, FRANTSESEKO ETA INGELESEKO IKASTAROAK EGITEKO PLAZAK, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILETAN ETA BATXILERGOKO 1. ETA 2. MAILETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEENTZAT

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko septiembre 16koa, Hezkuntza, Politika Lingüística eta Kulturako sailburuarena, atzerrian alemaneko, frantseseko eta ingeleseko ikastaroak egiteko plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoz finantzatzen diren ikastetxetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat (EHAA 2013.10.31).

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 4koa, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariarena, 2013ko irailaren 16eko Aginduak deitu zituen plazak esleitzen dituen eta onartutako gainontzeko eskabideentzako itxaron-zerrenden ordena ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

533 plaza deitu ziren Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Irlandan, egonaldi eta ikastaroak egiteko 2014ko udan. Plaza horiek deitzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoz sostengatzen diren ikastetxetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila eta Batxilergoko 1. eta 2. maila ikasten duten ikasleentzat.

Egonaldiaren kostuak, partez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ordainduko ditu eta, partez, ikasleak. Egonaldi hauetan parte hartzen duen ikasleari ordaintzea dagokion zatia 170 eurokoa (1. tarte) eta 680 eurokoa da (2. tarte)

Honekin batera, egonaldiak antolatu eta kudeatzeko kontratua bideratu zen (C02/024/2013), 847.038 eurokoa hain zuzen ere. Hizkuntzak ikasteko ikastaroak antolatzeko lehiaketan, 19 plaza gehituko zaizkio Erresuma Batuari dagozkion plazei. Batxilergoko Aparteko Saria lortu duten 15 pertsonentzat eta matematika-olinpiadan lehen lau postuak lortu dituzten DBHko 2. mailako ikasleentzat izango dira plaza gehigarri horiek. Beraz, guztira 552 plaza dira.

Kontzeptu hauek izango ditu deitutako plaza bakoitzak: joan-etorriko bidaia Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru hiriburuetatik ikasleak egonaldia egingo duen herrialdera, bidaia-asegurua, egingo duen hizkuntza-ikastaroaren matrikula eta eskola-materiala, alojamendua, mantengastuak eta ikastaroa emango den zentrorako hiri-garraioa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

David Jarque, S.L.U. (1. eta 2. loteak) eta EAS-VELE (3. lotea) empresa esleipendunak izan ziren (guztira, 761.880 euro)

Aurrekontu programako magnitudeak hauexek dira:

1.- Ikasle onuradunak (552).

Plaza guztiak eman ziren (552).

1.- Izenburua

NOLEGA DEIALDI BATERATUA 2014-15

2.- Araua

Agindua: 2014ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena; itunpeko ikastetxe pribatuetako giroa euskalduntzeko 2014-2015 ikasturterako laguntza-deialdia zabaltzen duena.

Ebazpena: 2014ko urriaren 24koa, Hezkuntza sailburuordearena; 2014-15 ikasturterako itunpeko ikastetxeen eskola giroa euskalduntzeko diru-laguntzak ebazten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ekimen ezberdinen bidez, euskararen erabilera bultzatzeko asmoz diru-laguntza deialdi bakarra argitaratu zen: NOLEGA DEIALDI BATERATUA 2014-15 hain zuzen ere. Gainera, urteetako ibiliak erakutsi digu ikastetxeek, hainbat kasutan, ekimen horiek batera antolatzen zituztela lehendik ere.

NOLEGA DEIALDI BATERATUA 2014-15 deialdi honek jarduera hauek begiesten ditu:

- a. Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatu eta eskola-giroa euskaldundu asmoz egiten diren saio-jarduerak: eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, irratigintza, bestelako ahozko lanketa digitalak edota kontalaritza...
- b. Euskal giro batean bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldi-irteerak.
- c. Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak:
 1. Ikastetxe barruan arlo akademikotik at euskaraz bizitzeko helburuarekin prestatutako jarduerak.
 2. Guraso, langile ez-irakasle edota irakasleentzat antolatutako berariazko jarduerak, beti ere ikasleen erabilera areagotzea dutenean helburu.
 3. Erabilera areagotzearekin lotutako ikasleen antolamenduzko jarduerak: hizkuntza paisaia; liburutegia; idatzizko arauak...
- d. Kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea helburu duten Ikastetxeen arteko truke-irteerak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdia gauzatzeko 150.000 euroko aurrekontua baliatuko zen ikastetxe pribatuei diru-laguntza ordaintzeko.

Deialdiaren arabera, ordaina behingoz egiten zaie urtero eskolei, kurtso hasieran, ebazpenean adierazten den diru-kopuruarekin. Diru kopuru hau guztiz erabiltzen da eskola guztien artean

banatzen delako, eta guztiei, euren merituak kontuan hartuta, zerbait ematen zaie (Ikus agindua)

NOLEGA deialdi bateratua ateratzerakoan, aurre ikusitako kopurua honakoa hauek izan ziren:

- Eskola-antzerkigintzan: 14.000 ikasle
- Eskola-bertsogintzan: 15.000 ikasle
- Eskola-kantagintzan: 21.500 ikasle
- Eskola-kontagintzan: 4.400 ikasle
- Eskola-irratigintzan: 16.200 ikasle
- Ikasgelaz kanpoko ekintzak: 122.200 ikasle
- Ikastetxeen arteko loturak: 1.300 ikasle
- Euskal girotze egonaldiak: 18.200 ikasle

Baina 2013-14 ikasturtean honela gauzatu ziren:

- Eskola-antzerkigintzan: 8.555 ikasle
- Eskola-bertsogintzan: 8.792 ikasle
- Eskola-kantagintzan: 16.086 ikasle
- Eskola-kontagintzan: 5.051 ikasle
- Eskola-irratigintzan: 3.645 ikasle
- Ikasgelaz kanpoko ekintzak: 151.500 ikasle
- Ikastetxeen arteko loturak: 715 ikasle
- Euskal girotze egonaldiak: 11.167 ikasle

1.- Izenburua

**UNIBERTSITATE AURREKO EUSKARAZKO IKASMATERIAL INPRIMATUENTZAKO
LAGUNTZA-BIDEA (EIMA 1)**

2.- Araua

Agindua, 2014ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmaitako euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizioari zuzendutako diru-laguntzetara biltzeko dei egiten duena (EIMA 1). (EHAA, 2014-09-01).

Ebazpena, 2014ko abenduaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmaitako euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizioari zuzenduriko diru-laguntzak esleitzen dituen (EIMA 1). (EHAA, 2015-02-24).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitate aurreko irakasmaitarako euskarazko ikasmaterial inprimatuak produzitu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten sustatze-lana egin eta laguntza eskaintzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an adierazle gisa ezarritako magnitudea: 140 ikasmaterial diruz lagunduta.

Aurkeztutako eskabide-orriak: 133

Diruz lagundutako ikasmaterialak: 117

Diru-laguntza jaso duten argitaletxeak:12

Gizarteko eragingune nagusiak: Unibertsitate azpiko irakasmaitako ikasle-irakasleak.

1.- Izenburua

UNIBERTSITATE AURREKO IRAKASMAILETAKO EUSKARAZKO IKASMATERIAL DIGITALAK DIRUZ LAGUNTZAKO PROGRAMA (EIMA 2.0)

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0) (EHAA, 2014-09-01).

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 13koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0). (EHAA, 2014-12-09).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitate aurreko ikasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak sortu, argitara eman eta zabalkundea izan dezaten sustatze-lana egin eta laguntza eskaintzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurkeztutako eskabide-orriak: 34

Diruz lagundutako ikasmaterialak: 11

Diru-laguntza jaso duten produkzio-etxeak: 9

Gizarte alorreko eragingune nagusia: Unibertsitate azpiko irakasmailetako ikasle-irakasleak.

2014an adierazle gisa ezarritako magnitudea: 30

Diruz lagundutako ikasmaterialak: 11

Ikus ondoko taulan urtez urteko garapena:

	2010	2012	2013	2014
Deialdira etorritako eskabideak	129	71	56	34
Diruz lagundutako eskabideak	35	13	10	11
Aurrekontua	756.558 + 168.578	225.000	200.000	200.000

1.- Izenburua

UNIBERTSITATE AURREKO EUSKARAZKO IKASMATERIALAK SORTZEKO EDOTA EGOKITZEKO LAGUNTZA-BIDEA (EIMA 4)

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmaitetako euskarazko ikasmaterialak sortzeko eta egokitzeko laguntzetara dei egiten duena (EIMA 4). (EHAA, 2014-09-01).

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 13koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmaitetako euskarazko ikasmaterialak sortzeko eta egokitzeko laguntzak esleitzen dituen (EIMA 4). (EHAA, 2014-12-05).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitate aurreko ikasmailetarako ikasmaterialen sorkuntza-lana bultzatzea eta materialon produkzioa, argitalpena eta zabalkundea bermatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an adierazle gisa ezarritako magnitudea: 40 ikasmaterial diruz lagunduta.

Aurkeztutako eskabide-orriak: 38

Diruz lagundutako ikasmaterialak: 33

Diru-laguntza jaso duten argitaletxe/lan-taldeak: 11

Gizarteko erangingune nagusia: Unibertsitate azpiko irakasmaitetako ikasle-irakasleak.



1.- Izenburua

2014KO UDAN ETA 2014-2015 IKASTURTEAN IRALE PROGRAMAREN BARNEAN SAILAZ KANPOKO ERAGILEEZ BIDERATU DIREN EKINTZETAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburuarena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaz kanpoko ikasketa-elkarte horiei 2014ko udan eta 2014-2015 ikasturtean IRALE programaren ekintzetan parte hartzea arautzen du. Ekintza horiek irakastorduz kanpoko edo irakastordu barneko goi-mailako zenbait ikastaroetan gauzatuko dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Irakasleen euskalduntzearen alorrean honako ikastaro hauek egin dira:

- a) Irakastorduetatik kanpoko trebakuntza-ikastaroak (IRALE):
 - 146 ikasketari 2014ko udan
 - 2.075 ikasketari 2014/15 ikasturtean (2015eko martxora arte)
- b) Irakaskuntza-elkarte baimenduen kopurua: 60

Memoria egiten den sasoian prebisioak izaten ditugu kontuan, eskabideak hain zuzen. Goian agertzen diren datuak errealak dira, 2014an gauzatu diren matrikulak.

1.- Izenburua

IRALE PROGRAMAREN BAITAN 2014. URTEAN IRAKASTORDU BARNEKO IKASTAROREN BATEAN JARDUTEKO IRAKASLEAK LIBERATU NAHI DITUZTEN IKASTETXE PRIBATU EDO GIZARTE-EKIMENEZKOENTZAKO LAGUNTZETARAKO DEI EGITEN DUENA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburuarena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

2014. urtean IRALE programaren irakastordu barneko ikastaroren batean ikasketari gisa ari den irakaslerik duten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoei dei egiten zaie, aipatu irakasleen ordezkatzek sortutako gastuei aurre egiten laguntzea da programa horren xedea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Irakasleen euskalduntzearen alorrean honako ikastaro hauek egin dira:

- a) Irakastorduen barruko trebakuntza-ikastaroak:
 - 42 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako (lehen txanda)
 - 50 postu, ikastetxe pribatuetako irakasleentzako (bigarren txanda)
- b) Parte hartu duen ikastetxe-pribatuen kopurua: 80

Gutxi bada ere, gure prebisioak baino liberazio gehiago izan dira 38 eta 46..



1.- Izenburua

ULIBARRI HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA. -13-14 DEIALDIAREN BIGARREN ZATIA ETA 14-15 DEIALDIAREN LEHEN ZATIA ORDAINTZEKO

2.- Araua

DEKRETUA: 2003ko abenduaren 23koa: Hizkuntza Normalkuntzako Ulibarri programa arautzen duena.

AGINDUA: 2013ko uztailaren 31koa: Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, ikastetxeetako Ulibarri programak 2013-2014 ikasturtean izango dituen gehienezko diru-baliabideak, programan sartzeko eta jarraitzeko baldintzak eta ikastetxe bakoitzak programarako izango dituen dedikazio-orduak zehaztuz.

AGINDUA: 2014ko ekainaren 4koa: Hezkuntzako sailburuordearena, Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuetatik kanpora zein ikastetxe geratzen diren eta beraietan sartuta zein ikastetxek jarraitzen duten eta bakoitzari dagokion ordu esleipena jakinarazten duena.

EBAZPENA: 2013ko azaroaren 1ekoa: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, ikastetxeetako Ulibarri programak 2014-2015 ikasturtean izango dituen gehienezko diru-baliabideak, programan sartzeko eta jarraitzeko baldintzak eta ikastetxe bakoitzak programarako izango dituen dedikazio-orduak zehazteko dena.

EBAZPENA: 2014ko urriaren 1ekoa: Hezkuntza sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita zein itunpeko ikastetxe geratzen den Hizkuntza Normalkuntzako Proiektuetatik kanpo, zein itunpeko ikastetxek jarraitzen duen proiektua horietan eta zein ordutegi dagokion.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza Proiektuen garapenean partaide eragileen lanak osatzen du programa honek. Bertan administrazioak, ikastetxe pribatuak eta bestelako instituzioak ere parte hartzen dute.

Ulibarri programak, bertan arituko diren ikastetxeek izango dituzten baliabideak finkatu behar dira batetik, eta, bestetik, programan sarbidea eskatu nahi duten ikastetxeentzat prozedura eta baloratzeko irizpideak ezartzen ditu Agindu bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdia gauzatzeko 200.000 euroko aurrekontua baliatuko zen 13-14 ikasturteko ikastetxe pribatuei diru-laguntza ordaintzeko. Gainera 14-15 ikasturteko hasierarako beste 800.000 euro ere erabili ziren 2014an.

Behin esleipenak egin eta gero, ikastetxe bakoitzari dagokiona bi zatitan ordaintzen zaie: ikasturte hasieran ebazpena atera eta gero dagokien %80 eta kurtso bukaeran ikasturteko ekimenen urteko memoria eman eta gero ordaintzen da %20a. (Deialdiak berak dio horrela egin behar dela)

Hizkuntza Normalkuntzako proiektuak gauzatzeko aurretiaz ikusitako kopuruak honakoak genituen:

- 16.600 irakasle
- 405 ikastetxe
- 180.000 ikasle
-

Baina 2013-14 ikasturtean honela gauzatu zen guztia:

- 22.199 irakasle
- 482 ikastetxe
- 228.695 ikasle

Gauzatu egin da esleitutako aurrekontu guztia.

1.- Izenburua

IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PLANA: ERAKUNDEENTZAKO DEIALDIA, PREST_GARA 2014-15 (ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK)

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko martxoaren 19koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, dei egiten zaie Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko proiektuak aurkeztuz Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin batera lan egin nahi duten erakunde publiko eta pribatuei.

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 10ekoa (EHHA abenduko 4koa)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honek hau finantzatzen du: irakasleentzako prestakuntza-ikastaro batzuk ematearen kostua; hain zuzen ere, Irakasleen Prestakuntzarako Prest_Gara Planaren barrukoak, 2014-15 ikasturtean.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programako magnitudeak:

-Entitate kolaboratzaileak: 73

-Jardueren kopurua: 226

57 erakunde publiko edo pribatu eman dituzte 2014/2015ean Prest_Gara Planean eskainitako ikastaroak, aurreikusita zeuden baino 16 gutxiago. Halere, kontuan hartzen baditugu 2014 urtean irakasleen prestakuntza-jarduerak egiteagatik diru-laguntzak jaso dituzten entitate edo erakundeak (9), aldea txikiagoa da.

Jarduerari dagokienez, 273 proposatu ziren eta 215 egin dira.

	2014. urtea	2015. urtea	Guztira
1.1. multzoa	66.149,40	44.099,60	110.249,00
1.2. multzoa	120.000,00	80.000,00	200.000,00
2.1. multzoa	103.200,00	68.800,00	172.000,00
2.2. multzoa	120.000,00	80.000,00	200.000,00
GUZTIRA	409.349,40	272.899,60	682.249,00

	2014-2015
Eskainitako ikastaroak	273
Egindako ikastaroak	215
Eskainitako lekuak	5.883
Jasotako eskariak	9.536
Onartuak	3.842

Irakasleen parte-hartzea: 3.842 eskari onartu dira

1.- Izenburua

**IRAKASLEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZARAKO PLANA:
2014AN IRAKASLEENTZAKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK
GABEKO ERAKUNDEENTZAKO DEIALDIA**

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko urriaren 28ko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzen deialdia egiten da 2014an irakasleak etengabe prestatzeko eta pedagogia eta didaktika eguneratzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.

Ebazpena, 2014ko azaroaren 20koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programa honen helburua hau da: laguntza ekonomikoak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleentzako prestakuntza-jarduerak (jardunaldinak, elkarraldiak, mintegiak...) egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta federazio edo erakundeei.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programako magnitudeak:

- Entitate kolaboratzaileak: 73

9 erakunde publiko edo pribaturi eman zaie diru-laguntza. Prest_Gara deialdiko 57 entitate kolaboratzaileak gehituz gero, 66 entitate dira, guztira. Aurreikusitakoarekin alderatuta, 7 gutxiago.

Hona deialdiaren emaitzak:

Eskabide kop.	Onartuak	Ezezkoa hartu dutenak	Aurrekontu-dotazioa	Emandako diru-laguntzen zenbatekoa
13	9	4	100.000,00€	45.766,19€

Hona lurraldekako banaketa:

Lurraldea	Esleitua
Bizkaia	14.494,98
Gipuzkoa	21.271,21
Araba	10.000,00
GUZTIRA	45.766,19

1.- Izenburua

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO PLANA – PRESTAKUNTZA / BERRIKUNTZA PROIEKTUAK ITUNPEKO IKASTETXEETAN 2014-2015

2.- Araua

Agindua, 2014ko urriaren 21ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena; honen bidez, itunpeko ikastetxe pribatuei eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoei dei egiten zaie hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten, 2014-2015 ikasturtean (EHAA, urriaren 23koa)

Ebazpena, 2015eko otsailaren 9koa (EHAA, otsailaren 17koa)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Finantzaketa ematea hezkuntza-prestakuntza eta -berrikuntzako proiektuei, unibertsitateaz besteko irakasleak xede dituztela, heziketa-zikloetakoak izan ezik. Proiektu hori itunpeko sareko ikastetxeetan egingo dira, baita Hezkuntza Sailaren mendean ez dauden zentro publikoetan ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programako magnitudeak:

- Prestakuntza/berrikuntza proiektuak: 534

326 prestakuntza/berrikuntza proiektu egin dira: 118 itunpeko sarean eta 208 sare publikoan. Beraz, 208 proiektu gutxiago daude, aurreikusitako magnitudearekin alderatuta. Beharpen horren arrazoia zera da: deialdiak aldatu dira eta laguntza eskaera guztien artean proportzionalki banatu beharrean, bakarrik ondoen baloratutako proiektuek lortuko dute diru-laguntza.

Deialdi honetan emandako diru-laguntzek 337.213,00 € egin zuten guztira, eta honela banatu ziren lurraldeen arabera:

Lurraldea	Emandakoa guztira: IV. kapitulua
Araba	42.654,00
Bizkaia	158.319,00
Gipuzkoa.	136.240,00
Guztira	337.213,00

Honela banatu ziren onetsitako proiektuak, lurraldea eta modalitatea kontuan hartuta:

Lurraldea	P.Integralak	Berrikuntzarako prestakuntzarako p.
Araba	1	13
Bizkaia	5	51
Gipuzkoa.	4	44
Guztira	10	108

Datu horiek ikusita ondoriozta daitekeenez, begien bistakoa da deialdiaren arrakasta, autonomia-erkidegoko itunpeko ikastetxe askok hartu baitzuen parte.

1.- Izenburua

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO PLANA – ITUNPEKO SAREAN, 2014-2015 IKASTURTEAN, PROIEKTU BATIK BAT HIRUELEDUNAK (ETA ELEANIZTUNAK) ETA, PROIEKTU HORIEI LOTUTA, IRAKASLEENTZAKO ATZERRIKO HIZKUNTZAKO PRESTAKUNTZA

2.- Araua

Agindua, 2014ko abuztuaren 29koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Horren bidez, deialdia egiten zaie Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei hizkuntza-proiektu batik bat hirueledunak (eta eleanitzak) garatzeko eta, proiektu horiei lotuta, irakasleek atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko 2014-2015 ikasturtean (EHAA, 2014ko irailaren 1ekoa)

Ebazpena, 2015eko otsailaren 5ekoa (EHAA, otsailaren 17koa)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Finantzaketa ematea itunpeko ikastetxeetako federazio eta elkarteei hizkuntza-proiektu batik bat hirueledunak (eta eleanitzak) garatzeko eta, proiektu horiei lotuta, irakasleek atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko 2014-2015 ikasturtean

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurrekontu programako magnitudeak:

- Proiektu eleanitzak: 150

2014-2015 ikasturtean, itunpeko 172 ikastetxek hartu dute parte. Hortaz, eta sare publikoko ikastetxeen proiektuak kontuan izan gabe, aurreikusitako baino 22 proiektu gehiago egin dira.

Honela banatzen dira proiektu horiek elkarten edo federazioen arabera:

Elkartea/federazioa	Ikastetxeak	Ikasle-taldeen kopurua	Parte hartu duten irakasleak
AICE	8	119	161
Eusko Ikastola Batza	16	311	223
Ikasgiltza	11	206	210
Euskal Herriko Ikastolak S.COOP.Europea	58	1.265	456
Kristau Eskola	79	1.031	775
Guztira	172	2.932	1.825

Honela zehazten da diru-laguntzen zenbatekoa:

Elkartea/federazioa	Subvención
AICE	94.900,00
Eusko Ikastola Batza	98.015,00
Ikasgiltza	71.475,00
Euskal Herriko Ikastolak S.COOP.Europea	257.284,96
Kristau Eskola	570.460,00
Guztira	1.092.134,96



1.- Izenburua

2014-2015 IKASTURTERAKO LAGUNTZAK, ZERO ETA HIRU URTE ARTEKO UMEENTZAKO TITULARTASUN PRIBATUKO HAUR-ESKOLENTZAT.

2.- Araua

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena.

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikuluko batzuk indarrean iraunarazten dituena. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan.

Agindua, 2014ko azaroaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, 2014-2015 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte arteko umeentzako titulartasun pribatuko haur-eskolentzat. (2014ko azaroaren 24ko EHAA).

2015.eko martxoaren 10eko ebazpenak (martxoaren 31.eko EHAA) laguntzak ematen ditu titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko 268 ikastetxeei: 36 Araban, 141 Bizkaian eta 91 Gipuzkoan.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak emango dira zero eta hiru urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko eskolei eusten laguntzeko, familien kuotak gutxitu eta homogeneizatzeko, familia eta lana uztartzeko zerbitzu bat eskaintzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, dagoen eskaintza sendotu nahi da.

Deialdi honetan **24.389.510,49** euroko diru-laguntza emango da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015.eko martxoaren 10eko ebazpenak (martxoaren 31.eko EHAA) laguntzak ematen ditu titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko 268 ikastetxeei: 36 Araban, 141 Bizkaian eta 91 Gipuzkoan.

Laguntza jasotzeko eskubide izan duten plaza-kopurua:

0 urte: 1.666

urte 1: 4.102

2 urte: 8.183

Guztira: 13.951



Diru-laguntzak emango dira zero eta hiru urte bitarteko umeentzako titulartasun pribatuko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko eskolei eusten laguntzeko, familien kuotak gutxitu eta homogeneousatzeko, familia eta lana uztartzeko zerbitzu bat eskaintzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, dagoen eskaintza sendotu nahi da, eta, beharrezkotzat joz gero, zabaldu, beti ere abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen plangintza-irizpideekin bat etorrira.

Aurrekontu memoriaren arabeko adierazleak:

Ikastetxeen kopurua: 264

Ikasle kopurua: 14.617

Helburuaren lortze-maila: %95,44



1.- Izenburua

2014-15 IKASTURTERAKO LAGUNTZAK, ZERO ETA HIRU URTE ARTEKO UMEENTZAKO HAUR-ESKOLEN TITULAR DIREN TOKI-KORPORAZIOENTZAT.

2.- Araua

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituen.

215/2004 DEKRETUA, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen. Azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan

Agindua, 2014ko azaroaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, 2014-2015 ikasturterako laguntzetarako deialdia egiten duena, zero eta hiru urte arteko umeentzako haur-eskolen titular diren toki-korporazioei. (2014ko azaroaren 13ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honi dagozkion diru-laguntzak 2014-15 ikasturterako zero eta hiru urte arteko haurrentzako udal-titulartasuneko haur-eskolen mantentze-kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira eta udal horiek eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arteko hitzarmen baten bidez gauzatuko dira.

Deialdi honetan **4.690.000,00** euroko diru-laguntza emango da

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

17ko 297/2002 Dekretua indarrean jarri aurretik haur-erakundeak eta/edo haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko eta Haurreskolak Partzuergora bildu ez diren 13 udalek parte hartu dute deialdi honetan.

Laguntza jasotzeko eskubide izan duten plaza-kopurua:

(2015.eko martxoaren 11ko ebazpena, apirilaren 8ko EHAA)

0 urte: 255

urte 1: 596

2 urte: 494

Guztira: 1.345



Diru-laguntzak emango dira zero eta hiru urte bitarteko umeentzako udal titulartasuneko Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko eskolei eusten laguntzeko, familien kuotak gutxitu eta homogeneizatzeko, familia eta lana uztartzeko zerbitzu bat eskaintzeko eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Izan ere, dagoen eskaintza sendotu nahi da.

Aurrekontu memorien arabera adierazleak:

Ikastetxeen kopurua: 13

Ikasle kopurua: 1.602

Helburuaren lortze-maila: %83,95



1.- Izenburua

HELDUEN HEZKUNTZAREN ALORREAN JARDUERAK GARATZEN DITUZTEN ETA IRABAZI-ASMORIK GABEKOAK DIREN ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko urriaren 31ko Aginduak pertsona helduen oinarrizko hezkuntzaren berariazko curriculuma erabaki eta finkatzen ditu.

Hezkuntzaren maitzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren I titularen IX. kapituluak, pertsona helduen hezkuntzari buruzkoak, hezkuntza arlo honek eduki behar dituen oinarriak ezartzen ditu, bai antolakuntzaren helburu orokorren ikuspegitik, bai erakunde ezberdinen antolakuntzaren eta elkarlanaren ikuspegitik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2015eko urriaren 15eko Agindua, zeinen bidez deialdia egiten baita helduen hezkuntzaren alorrean jarduerak garatzen dituzten eta irabazi-asmorik gabekoak diren erakundeei diru-laguntzak emateko.

Ebazpena, 2015eko otsailaren 3koa, Hezkuntzako sailburuordearena, helduen hezkuntzako alorrean jarduerak garatzen dituzten eta irabazi-asmorik gabekoak diren erakundeei diru-laguntzak emateko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da Oinarrizko Hezkuntza mailako Helduen hezkuntzarako jardunak garatzeko baimena duten eta irabazi asmorik gabeko izaera duten erakundeei laguntzea, batik bat egoera txarrean dauden edo babes berezia behar duten taldeei dagokienean.

Diru-laguntzaren zenbatekoa 39.000 eurokoa da

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Sei Erakundek jaso dute diru-laguntza. Irabazi asmorik gabeko Erakunde hauek I, II eta III. Graduko 225 ikasle artatu zituzten. 98 ikaslek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu zuten.

Aurrekontu memorien arabera adierazleak:

Erakundeak: 6

Ikasleak: 348

Helburuaren lortze-maila: %65

1.- Izenburua

MUSIKA-IKASTEGIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.- Araua

Agindua, 2014ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, musika-ikastegientzako diru-laguntzen deialdia egiten duena. (2014ko azaroaren 12ko EHAA).

Ebazpena, 2015eko otsailaren 3koa, Hezkuntzako sailburuordearena, musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeei diru-laguntzak emateko deialdia ebazten duena (2015eko otsailaren 19ko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Musika-ikastegietako langile-gastuak finantzatzen laguntzeko dira laguntza hauek; udalek aurrekontuaren % 25 edo gehiago finantzatzen dien ikastegienak eta finantzaketarik jasotzen ez duten ikastegienak. Honako hauek dira zentroak: musika-eskola publikoak eta pribatuak, udal-kontserbatorioak eta musika-ikasketak emateko baimenduta dauden ikastegiak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira 94 ikastegiri eman zaizkie laguntzak. Horietatik 69ri, aurrekontuaren % 25 edo gehiago finantzatzen die udalak (3 udal-kontserbatorio, 41 eskola publiko eta 25 eskola pribatu dira). Gainontzeko 25 ikastegiak mota honetakoak dira: oinarrizko ikasketak emateko baimenduta dauden 6 ikastegi, ikasketa profesionalak emateko baimenduta dauden 4 zentro eta 15 eskola pribatu. Aurrekontu programako lotutako magnitudea 96 ikastegi izan zen. Hori dela eta haien arteko erlazioa ona da.

Zentro horietan guztira 34.997 ikasle matrikulatu dira, 4 urteko neska-mutikoetatik hasi eta helduetara. Aurrekontuetan 39.146 ikasle izaten ziren; matrikulazioetan jaitsiera izan da.

Deialdiaren ebazpenean 1.651 irakaslerentzat eman dira laguntzak (eta 176 irakasleak ez diren pertsonarentzat). Aurrekontuetan irakasleak 1.850 irakasle izan ziren (eta irakasleak ez diren 179 pertsonak).

Udal-finantzaketa duten ikastegietan, aurrekontua 44 milioi eurokoa izan zen gutxi gorabehera, eta, hortaz, batez beste % 18,95eko finantzaketa eman da. Gainontzeko ikastegietan, berriz, 4,8 milioi euro ingurukoa izan zen aurrekontuen batuketan, eta, beraz, % 5,5eko finantzaketa eman da, batez beste.

Musikaren sustapenean eta gizartearen parte-hartzean lortutako gizarte-eragina izugarria da;

hainbat espezialitatetako ikasketak ematen dira (pianoa, txirula, tronpa...), eta horrek eragin handia du Euskal Autonomia Erkidegoko musika, dantza eta folklorean.

Jarduera mordo egiten da kanpora begira, herritarrentzat, herri eta hirietako festa- eta kultura-ekitaldietan; eta parte-hartzea eta gizarte-konpromisoa izaten dira sistemaren elementu bereizgarri eta berezienak.



1.- Izenburua

ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO LANBIDE-IRAKASKUNTZAKO IKASTETXE BAIMENDUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

Agindua, 2014ko apirilaren 29koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Horren bidez, arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateko deia egiten da (2014ko maiatzaren 16ko EHAA).

Ebazpena, 2014ko uztailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko apirilaren 29ko Aginduz egindako deialdia, arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-irakaskuntzako ikastetxe baimenduei diru-laguntzak emateari buruzkoa, ebazten duena. (2014ko irailaren 5eko EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Arte Plastikoetako eta diseinuko zentro baimenduei finantzaketarako laguntza ematea da helburua. Ezarpen publiko txikiko irakaskuntza arautuak dira (eskaintza publiko hauxe besterik ez daukagu: Vitoria-Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskola eta Ibarrekolanda BHI eta Usandizaga- Peñaforida- Amara BHIk ematen duten publizitate-grafikoko goi-mailako ziklo bana), baina gizarte- eta lanbide-interes handia dute gaur egun. Hortaz, eskaintza publikoaren osagarritzat jotzen dugu eskaintza pribatua, arteari buruzko kalitatezko prestakuntza-zikloak eta irudi, produktu eta giroen diseinuari lotutako jarduerak egiteko lanbide-kualifikazioak eskaintzen baitituzte.

Hori dela-eta, eskaintza publikoak egokitzen jotzen den lurralde-hedapena hartzen eta eskaintza egokia egiten ez duen bitartean, diru-laguntzen deialdia egiten da arte plastikoetako eta diseinuko ekimen pribatuko ikastetxeentzat.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzak hiru ikastetxeren artean banatu dira. Aurrekontuetan ere 3 ikastegi izan ziren.

Ikastegi hauetan zazpi prestakuntza-ziklo ematen dituzte, eta guztira 126 ikasle (horietatik 59 azken proiektua egiten ari dira) eta 38 irakasle biltzen dituzte. Aurrekontuetan magnitude gisa 196 ikasle izan ziren eta 38 irakasle.

466.000 euro inguruko langile-aurrekontuak aurkeztu ziren, eta aurrekontu horien % 17,64 finantzatzea lortu zen. Hauxe da lortzen den gizarte-eragina: ikasleek lanbide-prestakuntza eta espezializazio-maila handiak lortzen dituztela moda- eta barne-diseinuaren, lorategien diseinuaren, diseinu grafikoaren... lan-merkatuari begira.

1.- Izenburua

LAGUNTZA EKONOMIKOAK LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA ZIKLOAK ESKAINTZEN DITUZTEN IKASTETXEENTZAT, PRESTAKUNTZA PROIEKTUAK EGITEKO

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 24koa (EHAA, uztailaren 2koa), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egiten duena, 2014-15 ikasturtean irakasleek prestakuntza-jarduerak gauzatzeko.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen bidez, lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten 14 ikastetxeren prestakuntza-proiektuak lagundu ziren diruz.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honen bidez, Lanbide Heziketako 14 ikastetxe pribaturen prestakuntza-planetan oinarriturik, 59 prestakuntza-ekintza finantzatu ziren, gutxienez 10 irakaslekoak izan behar zirenak. Denera, 601 irakasle onuradun izan dituzte proiektuok. (EBAZPENA, 2014ko irailaren 24koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, Lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunpekoek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2014-2015 ikasturtean diru-laguntzak emateko dena.)

Ikastetxe pribatuei diruz lagundutako ekintzez aparte, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoei emandako diru-zuzkiduren bitartez, beste Lanbide Heziketako 41 ikastetxe publikoen prestakuntza-planak finantzatu egin dira. Hori denarekin, aurrekontu-programan aurreikusitakoarekin betetzen da (hau da, 55 ikastetxe prestakuntza-proiektuak finantzatzea).

Agindu honen bidez diruz lagunduko diren ekintzek ikastetxe bakoitzean izendatutako irakasleen prestakuntza-premiei modu egokitan erantzuten diete.

Irakasleen prestakuntzak duen erabilgarritasuna eta inpaktu soziala ikasleek jasotako irakaskuntzaren kalitatean islatzen da.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK IKASTETXE PRIBATUENTZAT, LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA ZIKLOAK IRAKASTEKO, ESKAINTZA PARTZIALAREN MODALITATEAN

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa (EHAA, ekainaren 11koa), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Lanbide Heziketako irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei eskaintza partzialeko modalitatean 2014-2015 ikasturtean heziketa-zikloak irakasteko baimena eta diru-laguntza eskatzeko deia egiten diena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide-heziketako heziketa-zikloak irakasteko, eskaintza partzialaren modalitatean.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honen bidez 12 ikastetxe pribatu lagundu ziren diruz, Fabrikazio mekanikoko, Informatikako, Administrazio, Osasuneko, Instalazio eta mantentze-lanetako, Elektrizitate eta elektronikako, Irudi eta soinu, Energia eta ur arloko, Ostalaritza eta turismoko, Jarduera fisiko eta kiroletako heziketa-zikloetako 56 moduluren prestakuntza antolatzeko. Lanbide-familia horiek laneratze-indize handieneko batzuk dira. (EBAZPENA, 2014ko irailaren 15ekoa, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzian irakasteko baimena eta diru-laguntzak emateko erabakia hartzen duena)

Aurrekontu-programaren aurreikuspena (Eskaintza Partzialeko 150 moduluak) bete egin da; esandako deialdiaren bidez diruz lagundutako 56 moduluez aparte, beste 137 moduluak finantzatu egin dira ikastetxe publikoetan. Beraz, guztira Eskaintza Partzialeko 193 moduluk martxan jarri dira. Horren ondorioz, modulu horietan matrikulatutako ikasleei buruz, 2.400 ikasle aurreikusi ziren aurrekontu-programaren memorian eta 4.276 matrikulak izan dira guztira.

Inpaktu soziala eskaintza partzial honen bidez helduen berariazko lanbide-heziketako ikasketak egiteko betekizunak malgutzear datza, lanbide-kualifikazioa hobetu dezaketelako, hala dagokionean, dagokien titulua eskuratzea ahalbidetuz.

1.- Izenburua

LAGUNTZAK IKASTETXE PRIBATUENTZAT, LANBIDE HEZIKETAKO HEZIKETA ZIKLOEN SARRERA PROBAK PRESTATZEKO IKASTAROAK EMATEKO

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa (EHAA, ekainaren 11koa), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetarako sarbide-proben prestakuntza-ikastaroak emateko diru-laguntzen deialdia egiten duena, 2014-15 ikasturterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ikastetxe pribatuentzat, lanbide-heziketako heziketa-zikloen sarrera-probak prestatzeko ikastaroak emateko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honen bidez 20 ikastetxe pribatu lagundu ziren diruz, Erdi-mailako eta Goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-probak prestatzeko 28 ikastaro antolatuzko. (EBAZPENA, 2014ko uztailaren 28koa, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariarena, 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketarako sarbide-probak prestatzeko ikastaroetarako Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduriko diru-laguntzak ebazten dituen).

Aurrekontu-programaren aurreikuspena (Lanbide Heziketarako sarbide-probak prestatzeko 80 talde) bete egin da; esandako deialdiaren bidez diruz lagundutako 28 taldeez aparte, beste 67 taldek finantzatu egin dira ikastetxe publikoetan. Beraz, guztira Lanbide Heziketarako sarbide-probak prestatzeko 95 taldek martxan jarri dira. Horren ondorioz, talde horietan matrikulatutako ikasleei buruz, 2.500 ikasle aurreikusi ziren aurrekontu-programaren memorian eta 2.840 ikaslek matrikulatuta izan dira guztira.

Inpaktu soziala ikastaro horien bidez helduak lanbide-heziketako heziketa-zikloetan sartzea ahalbidetzean datza. Hala, beren lanbide-kualifikazioa hobetu dezakete, lan-merkatuak eskatutako prestakuntzari erantzuteko egokitasun handiagoa lortzeaz gain.



1.- Izenburua

LAGUNTZAK, BIZITZA OSOAN ZEHAR EGITEN DEN IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAK ARAUTZEKO AZAROAREN 27KO 248/2012 DEKRETUAN AURREIKUSITAKOAK.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 15ekoa (EHAA, uztailaren 18koa), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen azaroaren 27ko 248/2012 Dekretuan aurreikusitako 2014 urteko diru-laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Bizitza osoko ikaskuntza-jarduerak sustatzea hiru modalitatetan: 55 urtetik gorako pertsonen autonomia eta parte-hartze soziala hobetzeko oinarritzko gaitasunei eta gaikuntzari loturiko prestakuntza-premiak betetzera bideratutako berariazko prestakuntza-jarduerak, ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak eta esperimantazio-proiektuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 35 berariazko prestakuntza-jarduera, 5 ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzu eta 6 esperimantazio-proiektu lagundu dira diruz. Onuradunak, guztira, 21 erakunde izan dira. Berariazko prestakuntza-ekintza horien onuradun, guztira, 774 pertsona izan dira. Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuei dagokienez, gutxienez 30.000 biztanleko udalerrietan edo eskualdeetan gauzatuko dira, 3.820 lagun ingururi zerbitzu emanez. (EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez erabakitzen baita erakundeei diru-laguntzak ematea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako jarduerak egiteko).

Aurrekontu-programaren memorian bizialdi osoko ikaskuntzako ekintzak garatzen dituzten 20 proiektu finantzatzea aurreikusten zen. Beraz, aurrekontu-memorian adierazlearekin bete egin da.



1.- Izenburua

DIRULANGUNTZAK UDALEI, MANKOMUNITATEEI EDOTA HORIEK SORTUTAKO ERAKUNDEEI ETA ERAKUNDE PRIBATUEI ZUZENDUAK 2º MAILAKO HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK EMATEKO ETA 1º MAILAN PRESTAKUNTZA IRAGANKOR INTEGRATUKO PROGRAMAK GARATZEKO. AZKEN PROGRAMA HAUEK AURREKOAK ORDEZKATZEN DITUZTE AURTENGOZ.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzarako deialdia egiten zaie udalei, mankomunitateei edo horiek sortutako erakundeei eta erakunde pribatuei, 2014-2015 ikasturtean Hasierako Lanbide Prestakuntzako bigarren mailako programak garatzeko.

AGINDUA, 2014ko irailaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014-2015 ikasturterako diru-laguntzen deialdia egiten duena, itunpeko ikastetxe pribatuetan Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak emateko, baldin eta Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programak emateko itunduta baldin bazeuden 2013-2014 ikasturtean.

AGINDUA, 2014ko irailaren 24koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, 2014-15 ikasturterako diru-laguntzarako deialdia egiten da Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, mankomunitateetan edo horiek sortutako erakundeetan eta erakunde pribatuetan 2013-2014 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eman eta programa horiek finantzatzeko hezkuntza-hitzarmenik lortu ez zutenetan.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aipatutako 3 diru laguntzen deialdien helburua da eskolan porrot egiteko arriskua duten ikasleei ordezko prestakuntza eskaintzea, Bigarren Hezkuntzako Graduatua edo erdi mailako Lanbide Heziketan sartzeko lor dezaten. Aldi berean 1. Mailako lanbide-gaitasuna eskura dezaten lan munduan errazago sartzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

EBAZPENA, 2014ko irailaren 11koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, udalei, mankomunitateei edo horiek sortutako erakundeei eta erakunde pribatuei diru-laguntzak emateko deia egiten duena, 2014-2015 ikasturtean Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetako 2. maila garatzeko.

EBAZPENA, 2014ko urriaren 22koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena diru laguntzak banatzen dituen, itunpeko ikastetxe pribatuetan Prestakuntza Iragankor Integratutako



Programak emateko, baldin eta Hasierako Lanbide Prestakuntzarako programak emateko itunduta baldin bazeuden 2013-2014 ikasturtean.

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena. diru laguntzak banatzen dituen, 2014-2015 ikasturtean Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan, mankomunitateetan edo horiek sortutako erakundeetan eta erakunde pribatuetan 2013-2014 ikasturtean Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eman eta programa horiek finantzatzeko hezkuntza-hitzarmenik lortu ez zutenetan.

Aipatutako ebazpenen bidez titulartasun ezberdineko 61 ikastetxeri laguntzak eman zaizkie, guztira 3.800 ikasle atenditu dituztenei hain zuzen. lazko datuekin alderatuta, gehitu egin dira ikastetxe eta ikasleen kopurua. Horren arrazoia izan da aurten Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak deialdi bidez erabat diruz lagundu izana, alde aurretik itun bidez laguntzen zirenak ere kontuan hartuta.

Helburu akademikoak programa berria behin amaitutakoan baloratuko dira.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako programen garapena, udalen eta entitate pribatuen parte hartzeaz batera.

Helburua	Jarritako helburua	Lortutakoa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Departatuaren aldetik, Hasierako Lanbide Prestakuntzako programak egiteko diru laguntza jaso duten ikastetxe, udal, entitate pribatu kopurua.	45	61 ¹
Ikastetxe publiko kopurua	8	7 ²
Ikastetxe kontzertatu kopurua	13	13
Talde kopurua	345	322 ³
Ikasle kopurua	4.300	4.279
Lanbideko 1. Mailako kualifikazioa lortutako ikasle kopurua. Kontuan hartuta, 2. Mailan matrikulatutako ikasle kopurua.	59,33%	Oraingoz ez da ikasturtea bukatu

¹ Talde kopurua handitu egin da, aurtengo Prestakuntza Iragankor Integratutako 1. Maila diru laguntzaz baino ez delako finantziatu.

² Ikastetxe publiko 1 gutxitu da, talderik osatu ez delako.

³ Taldeak osatzeko ikasle kopurua handitu denez 12ra, horrek ere ekarri du talde kopurua gutxitzea.



1.- Izenburua

DOKTOREAK EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO PROGRAMAKO LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 1ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, 2014-2015 ikasturtean doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko Doktoratu Aurreko Programako laguntza berriak eta laguntza-berritzeak erregulatzen dira, eta laguntza horien deialdia egiten da.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea oinarri arautzaileak ezartzea eta 2014-2015 ikasturterako laguntzak, hau da, doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programaren laguntzak –doktoreak ez diren ikertzaileek doktorego-tesia egitera bideratutako ikerketa finantzatzeko direnak– iragartzea da. Deialdiaren bidez, laguntza berriak emango dira, eta 2013-2014 ikasturterako emandakoak berrituko.

Programaren helburua da ikertzaileen prestakuntza sustatzea, doktorego-programa baten bidez, doktore-titulua lor dezaten eta kalitatezko zientzia-ikerketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren guztizko zenbatekoa, deialdi honetan, 8.699.823 euro da.

Dirulaguntzak, bai berriak, bai berriztapenak, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearen 2014ko abenduaren 17ko Ebazpenen bitartez ebatzi zen.

Lortutako emaitzak:

Eskaera berriak:	466
Esleitutako bekak:	115
Berriztapenak:	293
Bekak guztira:	408

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak:

2014. urterako helburua 404 beka ematea zen (100 berri eta 304 berriztapen)

Duela urte batzuk ezarritako aurre doktoretzako ikertzaileen prestakuntzarako programa hau, oinarrezkoa da giza talde espezializatu bat formatzeko. Programa honek, Euskadin ikertzen duten pertsonen zenbatekoa elikatzen du etengabe; zenbateko hau, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren lehia neurtzeko adierazle estrategikoa baita.

1.- Izenburua

IKERTZAILE DOKTOREEN DOKTORETZA-ONDOKO HOBEKUNTZA-PROGRAMARAKO LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 10ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Horren bidez, 2014-2015 ikasturteari begira ikertzaile doktoleen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako laguntza berriak emateko eta aurrekoak berritzeko modua arautzen da, eta deialdia egiten da.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen bidez, EAEko ezarpen-zentroetan hobekuntza gauzatzen ari diren eta denbora baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktorentzako 2014-2015 ikasturterako beka arautzeko oinarriak ezarri nahi dira, bai eta laguntza horietarako deialdia egin ere. Deialdian, beka berriak ematea jasota dago, bai eta 2013-2014 ikasturtean emandakoak berritzea ere.

Programa honen xedea da ikertzaile doktoeren ikerketa-hobekuntza sustatzea. Honakoei zuzenduta dago programa hau: EAEn egoitza duen unibertsitate batekin, ikerketa-zentro batekin, osasun arloko ikerketa-institutu batekin edo Ikerbasquerekin izenpetutako lan-kontratu baten bidez, eta laguntzak irauten duen artean, beren prestakuntzako eta espezializazio zientifikoko eta teknikoko jarduerekin jarraitzeko, aldi baterako atzerrira joaten diren ikertzaileei

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren zenbateko osoa 2.670.870€ da.

Dirulaguntza berriak, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearen 2014ko abenduaren 17ko Ebazpenaren bitartez ebatzi ziren, eta berriztapenak, 2014ko irailaren 15eko ebazpenaren bitartez.

Lortutako emaitzak:

Eskaera berriak:	89
Esleitutako beka:	26
Berriztapenak:	45
Bekak guztira:	71

Aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak:

2014rako helburua 68 beka ematea zen (25 berri eta 43 berriztapen).

Programa honen bitartez, doktoreak diren ikertzaileen internazionalizazioa eta Euskadiko unibertsitateetara eta bikaintasun zentroetara itzultzea bultzatu nahi da.

Atzerrian dagoen bitartean, bi urtez, ikertzaileak, orokorrean, bere arloan puntako zentro baten ikertzeko aukera izango du, ezagutza, teknika eta kontaktu berriak lortuz. Lorpen berri guzti hauek, Euskadiko unibertsitate edo ikerketa zentroan erabili edo martxan jarri ahal izango ditu laguntzaren hirugarren urtean, hona bueltatzen denean.

Internazionalizazioa erabilgarritasun handiko balio erantsi bat da Euskadiko harrerako ikerketa taldeentzat, hain zuzen ere, talde hauek, ikertzaileak atzerrian lortutako ezagutza berrien onura izango dutelako.

1.- Izenburua

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARENTZAT INTERESGARRIAK DIREN GAIETAN, ATZERRIAN ESPEZIALIZAZIO-IKASKETAK EGITEKO BEKEN BERRIZTAPENA.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat interesgarriak diren gaietan, 2014-2015 ikasturtean, atzerrian espezializazio-ikasketak egiteko beka berritzeko deia egiten da.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez EAErako interesgarriak diren arloetan master-titulua edo baliokideak lortzeko, atzerrian ikasketak egiteko beken berriztapena eman nahi da.

Programa honen helburua unibertsitateko goi-mailako titulua edo parekoa duten pertsonen espezializazio akademikoa edo profesionala lortzeko bidea erraztea da. Pertsona horiek unibertsitateko master-programa edo pareko batean, atzerrian, espezializazio-ikasketak eginez trebatuko dira

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programaren zenbatekoa 147.586 €-koa da

2014-2015 ikasturterako 7 beka berriztu dira Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearen 2014ko azaroaren 14ko ebazpenaren bitartez. Ikasturte honetarako hau zen aurreikuspena, 7 eskatzailek adierazi bait zuten 2013-2014 urteko eskaeran euren masterra 2 urtekoa zela.

1.- Izenburua

IKERTZAILEAK PRESTATZEKO DOKTORETZA-AURREKO PROGRAMAKO BEKAK APLIKATZEKO ZENTROEZ BESTELAKOETAN EGONALDIAK

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. (EHAA 2013/11/28)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Beka aplikatzen den zentroetan ez, beste batzuetan doktoretza-aurreko egonaldiak egiteko dei egitea prestatzen ari diren ikertzaileei. Egonaldi horien helburua izango da ikertzaileak zientzia- eta teknika-ikerketan hobeto prestatzea, eta horretarako laborategi edo ikerketa-zentroetan ikerketa-lanak egitea, ikerketa-proiektuari aplikatzeko teknika berriak ikastea, bibliografia- eta ikerketa-fondoetan kontsultatzea eta beste edozein ikerketa jarduera egitea esku artean duen tesi-proiektuaren testuinguruan, ikertzailearen zientzia- eta teknika-prestakuntza hobetzeko eta tesiaren garapena bultzatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Doktoretza-aurreko egonaldiak egiteko prestatzen ari diren ikertzaileentzat 71 diru-laguntza eman ziren, 2013an baino 3 gutxiago. Ezarritako adierazle tinkoa 65ekoa zen.

Eskabideak	Emandakoak	Ukatutakoak	Zenbatekoa
134	71	63	199.950

Diru-laguntzak Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak emandako 2014/02/05 ebazpen bidez esleitu ziren. Emandakoen zenbatekoa 199.950 eurokoa izan zen, 2013an emandakoaren antzekoa. Azkenengo honetan 63 eskabide ukatu ziren, horietako 55 diru ezagatik eta 8 baldintzak ez betetzeagatik.

Programa honek, doktore ez diren ikerlariei doktoretza lortzeko ikerketa jardueretan hobetzeko aukera eskaintzeaz gain, aplikazio zentroa atzerrikoa denetan, nazioarteko doktoretza lortzea ahalbidetzen du, horrek doktore tituluari balio erantsia emanez.

Egonaldiak egiteko herrialde nagusiak honakoak: AEB, Erresuma Batua, Frantzia, Alemania eta Eskandinavia. 2014rako ezarritako helburua 65 diru-laguntza ematea zen. Azkenean, 71 diru-laguntza eman dira.

1.- Izenburua

KONGRESUAK ETA ZIENTZIA-BILERAK EGITEKO LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko abenduaren 17koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, EHAA 2013/12/31 (2014ko lehen sei hilabetekoan zehar).

AGINDUA, 2014ko apirilaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, EHAA 2014/04/22 (2014ko bigarren sei hilabetekoan zehar).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da diru-laguntzak arautzea eta dei egitea, zientzia-ikerketaren eremuan kongresuak eta bilerak antolatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan, beti ere, 2014an zehar aurrera eramango diren jarduerak.

Idea eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuenak trukatzeko eta zabaltzeko ez ezik, baita Euskadiko zientzia arloaren ikuspegi orokorra izateko ere tresna egokiak dira Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren kongresuak. Horregatik uste da interes handikoa dela Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako jarduerak egiten laguntzea eta, batez ere, horien kalitate zientifikoa eta arrakasta bultzatzea, Espainiako eta atzerriko ospe handiko ikertzaile eta irakasleen partaidetzaren bitartez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

	Lehen sei hilabetekoan	Bigarren sei hilabetekoan	Guztira
Eskabideak	57	59	116
Emandakoak	32	43	75
Ukatutakoak	25	16	41

Lehenengo sei hilabetekoari dagozkion diru-laguntzak 2014ko martxoaren 14ko Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpenaren bitartez esleitu ziren; bigarren sei hilabetekoari dagozkiona 2014ko uztailearen 1eko ebazpenaren bitartez. Guztira, 75 diru-laguntza esleitu ziren, programaren ebaluaketarako aurretik finkatu zen adierazlea bezalaxe.

116 eskabide jaso ziren eta 75 eman ziren. 2013koarekin alderatuz, bai eskaera bai eta esleipen kopurua txikiagoa izan da, programaren diru-kopurua ere murriztagoa izan baita. Emandako diru-kopurua 480.00 eurokoa izan da, hau da, 2013an izandako diru-kopurua baino ehuneko hoge txikiagoa.

2014an emandako diru-kopuruaren batez bestekoa 6.400 eurokoa izan da, 2013koarenaren antzekoa. 10 urte hauetan, eskaera bikoiztu egin da.

	Nazioarteakoak	Nazionalak	Guztira
Kongresuak	10	31	41
Bilerak	3	31	34
Total	13	62	75

Jarduaren izarari begiratuz 41 kongresu y 34 bilera zientifiko finantzatu dira; 13 nazioarteakoak eta 62 nazio mailakoak

Kontuan harturik horrelako jardureetan izaten den parte-hartzea eta bertaratuen jatorria, programaren eragina handia da. Deialdi hauetako jardunaldietarako bertaratze-kopurua 5000 pertsonatik gorakoa izatea aurreikusten da.

1.- Izenburua

IKERTZAILEENTZAKO MUGIKORTASUN PROGRAMA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko apirilaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Ikertzaileentzako Mugikortasun Programarako deialdia egiten duena. (EHAA 2014/04/22)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Norgehiagoka-erregimenean, dedikazio eskusiboarekin, honen helburua ikerketa-zentroetan egonaldiak egitea da; batetik, I+G+B zentro eta erakundeetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzeko, eta, bestetik, ikertzaile-taldeen lehiakortasuna eta gaitasunak hobetzeko.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa-proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik dagoen; edo, bestela, goi-mailako lortura eta elkartrukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Eskaerak	Emandakoak	Ukatutakoak	Zenbatekoa
26	15	11	118.478

26 eskabide (-%25), eta horietatik 15ek lortu dute diru-laguntza (-%20). Deialdirako 120.000 euro jarri ziren, 2013an baino %20 gutxiago. 118.478 euro eman ziren Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2014/07/21eko ebazpen bidez. Laguntzak emateko adierazlea 15ekoa zen.

Ikertzaile doktoreen formazioa, hobekuntza, eta euren jarduna nazioarteratze aldera burutzen den programa da. Egonaldi hauek hobekuntza atzerriko ikerketa taldeekin harremanak sendotu, ikerketa-sareak sortu, ikerketa-lerro berriak lortu, eta artikulu zientifikoak argitaratzea dute helburu.



1.- Izenburua

ONARRIZKO EDO/TA APLIKATUTAKO IKERKETA PROIEKTUAK ETA LANKIDETZAZKO PROIEKTUAK

2.- Araua

Urtero egiten da honelako deialdia. Bertan hiru urte arteko ikerketa-proiektuak gauzatzea jasotzen da. Egun indarrean dauden aginduak honako hauek dira:

- AGINDUA, 2011ko uztailaren 5koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012- 2014 epealdirako oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak, elkarlanekoak eta giza-eta gizarte-zientzietakoak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten duena.
- AGINDUA, 2012ko ekainaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2013- 2015 epealdirako oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak eta elkarlanekoak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten duena.
- AGINDUA, 2013ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014-2016 epealdiri dagokionez, oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Onuradunak:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen entitate-mota hauek:

- Oinarrizko Ikerketa- eta Bikaintasundun Zentroak.
- Zentroak, Departamenduak, Sekzioak, Institutuak eta Unibertsitateetako beste Ikerketa-Unitate batzuek., UPV/EHUkoak izan ezik.
- Kooperatiba-Ikerkeetarako Zentroak.
- Zentro Teknologikoak.
- Ikerketarako zentro sektorialak.

Helburua:

Ondoren azaltzen diren modalitateetan, ikerketa-proiektuetarako diru laguntzak ematea:

- Erakunde bakarreko ikertzaile-taldeek proiektuak.
- Proiektu berean, erakunde desberdinetako ikertzaile-taldeek parte hartzen duteneko lankidetzak-proiektuak.

Diru-laguntzarako baldintzak: Erakunde eta ikertzailearen arteko lan-kontratuan eta lan-baldintzetan egonkortasuna bilatzen da kalitate handiko ikerketa bideratu ahal izateko. Proiektuen zenbait kontzepturako mugatu egiten da dirukopurua.

Bateragarritasuna: Agindu honen babespean ematen diren diru-laguntzak helburu berarekin

lortutako beste diru-laguntzekin bateragarriak dira, betiere laguntza horiek aitortu ondoren eta gainfinantzaketa ematen ez bada.

Dirukopurua:

2014. urtean indarrean dauden hiru deialdi hauek 740.050 €ko inbertsioa osatu dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzak, 2014ko urriaren 9ko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearen ebazpenaren bitartez esleitu ziren; 13 proiektu jaso zuten laguntza 2014an; guztira 45 dira indarrean daudenak, aurreko bi deialdietan emandakoak kontuan hartuta. Programaren ebaluaketarako zehaztu zen adierazlea 35 diru-laguntza ematea zen.

Deialdia	Urteanitzeko dirukopurua	2014ko Exekuzioa	Proiektuaren modalitatea (bakarrean/ lankidetzan)	Erakunde onuradunaren mota
PI2012-14	860.000	206.250	16 bak.+ 2 lank. = 20 proiektu	4 Unibertsitate 8 Kooperatiba 8 Z. Teknologiko
PI2013-15	860.000	229.800	12 bak. + 5 lank. = 22 proiektu	8 Unibertsitate 4 Kooperatiba 10 Z.Teknologiko
PI2014-16	688.000	304.000	7 ind.+ 3 coop = 13 proiektu	4 Universidades 4 Kooperatiba 5 Z.Teknologiko
Orotara 2014		740.050		

Entitate bakarreko eta lankidetzako proiektuen arteko duela bi urte egindako dirukopuruaren banaketa (%50-%50koa) oso egoki jotzen da, erraztu egin baititu lankidetzako proiektuak, eta horixe da deialdi honen helburuetariko bat.

Lankidetzako proiektuen finantzaketaren urtez-urteko ibilbide baikorra argia da. Horren froga da modalitate honetan eskaturiko proiektu guztiak finantzatu direla, eta bakarkako proiektuetako finantzaketa-portzentaiak ez duela %10a gainditu,

2015 urteko deialdia (PI15) 15/16/17

2014an, 2015-17 epealdian finantzatuko diren proiektuetarako deialdia eta ebaluaketa prestatzen dira.



1.- Izenburua

UNIBERTSITATE-ENPRESA PROIEKTUAK

2.- Araua

Urtero egiten da honelako deialdia. Bertan bi urte arteko ikerketa proiektuak gauzatzea jasotzen da. Aginduak honako hauek dira:

- AGINDUA, 2012ko ekainaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Unibertsitate-Enpresa egintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten duena (2013-2014)
- AGINDUA, 2013ko abenduaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Unibertsitate-Enpresa egintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten duena (2014-2015).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Onuradunak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Unibertsitateek, Euskal Herriko Unibertsitatea izan ezik, baldin eta plantillan ikertzaile-taldeak badituzte.
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen agente hauek:
 - Oinarrizko Ikerketa- eta Bikaintasundun Zentroak.
 - Kooperatiba-Ikerkeetarako Zentroak.
 - Zentro Teknologikoak.
- Pare hartzen duten enpresek, nahiz eta onuradun zuzenak ez izan, ikerketaren emaitzak jasoko ditu, zeren eta landutako gaiak eta emaitzek, haien interesekin ados etorri behar dute.

Helburua: Produkzio-enpresentzako onuragarriak diren aplikatutako eta teknologia-ikerketa proiektuetarako diru- laguntzak ematea. Unibertsitate-ikertzaileek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko ikertzaileek parte hartu behar dute enpresetako I+G unitateekin batera. Agente horiek gizartean, industrian edota teknologian aplikazioa duten gaiak jorratuko dituzte.

Dirulaguntzaren baldintzak:

- Enpresa partehartzaileek proiektuaren zenbateko %10^a finantzatu beharko dute eskudirutan.
- Unibertsitate onuradunak eta enpresak lankidetzaren hitzarmena sinatuko dute.
- Enpresako ikertzaile bat gutxienez partaide izango da Ikerketa-taldean.
- Proiektuen zenbait kontzepturako mugatu egiten da dirukopurua.

Bateragarritasuna.

Agindu honen babespean ematen diren diru-laguntzak helburu berarekin lortutako beste diru-laguntzekin bateragarriak dira, betiere laguntza horiek aitortu ondoren eta gainfinantzaketa ematen ez bada.

Dirukopurua:

2014. urtean indarrean dauden deialdi honek 203.247 €ko inbertsioa osatu du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntzak, 2014ko ekainaren 24ko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearen ebazpenaren bitartez esleitu ziren; 4 proiektu jaso zuten laguntza 2014an; guztira 11 dira indarrean daudenak, aurreko deialdian emandakoak kontuan hartuta. Programaren ebaluaketarako zehaztu zen adierazlea 10 diru-laguntza ematea zen.

Deialdiak	Urteanitzeko dirukopurua	2014ko Exekuzioa	Zenbat proiektu	Onuradunak
UE2013-14	229.472	98.345	7 proiektu	7 Unibertsitate 1 Kooperatiba 8 Enpresa
UE2014-15	229.472	104.902	4 proiektu	4 Unibertsitate 3 Enpresa
Total 2014		203.247		

2015 urteko deialdia (UE15) 15/16

2014an zehar deitu eta kudeatu egiten da 2015 eta 2016ko ekitaldietan diruz lagunduko diren proiektuen deialdiaren ebaluazioa. Bestetik, asmoa da 2015ekoa izatea izaera presentziala baino ez duen azken deialdia, eta 2016koa eta hurrengoak prozedura telematikoaren bidez bideratzea, behin horretarako aplikazioa prest egonda.



1.- Izenburua

EKIPAMENDU ZIENTIFIKOA.

2.- Araua

Urtero deitzen dira diru-laguntza hauek, eta urtebeteko ikerketa proiektuak gauzatzea da deialdiaren helburua. Egun indarrean dagoen egindua honako da:

AGINDUA, 2013ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko 2014ko deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Onuradunak:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko entitate-mota hauek:

- Oinarrizko Ikerketa- eta Bikaintasundun Zentroak.
- Zentroak, Departamenduak, Sekzioak, Institutuak eta Unibertsitateetako beste Ikerketa-Unitate batzuek., UPV/EHUkoak izan ezik.
- Kooperatiba-Ikerkeetarako Zentroak.
- Zentro Teknologikoak.
- Ikerketarako zentro sektorialak.

Helburua:

Deialdiaren xedea 18.001 eta 240.000 euro arteko kostua duen (BEZik gabe) ekipamendu zientifikoa erosteko diru-laguntzak ematea da.

Dirulaguntzaren baldintzak:

Deialdi honen inguruko eskaerak ikerketa-talde bakar batek edo erakunde batzuren Ikerketa taldeek batera egin ahal dituzte. Ekipamenduaren erosketara ebazpena eman denetik sei hilabete barruan gin baherko da.

Bateragarritasuna:

Agindu honen babespean ematen diren diru-laguntzak helburu berarekin lortutako beste diru-laguntzekin bateragarriak dira, betiere laguntza horiek aitortu ondoren eta gainfinantzaketa ematen ez bada.

Dirukopurua:

2014. urtean indarrean dauden deialdi honek 300.000 €ko inbertsioa osatu du.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdia	Diru-kopurua	2014ko exekuzioa	Ekipamendu proiektuak	Onuradunak
EC2014	300.000	300.000	6 proiektu	4 Z. Teknologiko 2 Kooperatiba

Diru-laguntzak, 2014ko uztailaren 7ko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordearen ebazpenaren bitartez esleitu ziren; 6 proiektu jaso zuten laguntza 2014an; programaren ebaluaketarako zehaztu zen adierazlea 8 diru-laguntza ematea zen.



1.- Izenburua

EUSKADI IKERKETA SARIA

2.- Araua

323/2010 DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, Ikerkuntzarako Euskadi Saria arautzen duena, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

AGINDUA, 2013ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Ikerkuntzako 2013ko Euskadi Sarirako deia egiten duena, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz (EHAA 2013/12/31)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadi Ikerketa Saria jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz egiten da. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikertzaileek eta talde kualifikatuek egiten dituzten ahaleginak sustatzea eta bultzatzea oso garrantzitsua baita, horien lanak oso eragin positiboa izan baitu Euskadin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2013ko Euskadi Ikerketa Sarira, Gizarte-Zientziak eta Humanitateak modalitatean, 12 hautagai aurkeztu ziren.

Epaimahaikideak honakoak izan ziren: Teresa Cabré, Víctor Gómez Pin, Miguel Herrero Rodríguez de Miñón (lehendakari gisa), Nuria Sebastián (idazkari gisa), Jean Michel Uhaldeborde. Saritua Gregorio Monreal Zía jauna izan zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Historiaren eta Erakundeen katedradun emerittoa. (2014/04/28ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena). Ebaluaketa egiteko markatutako adierazlea zen saria bera ematea.

Dekretuan ezarritakoari jarraituz, sariaren kopuru gordina 40.000 eurokoa izan zen



1.- Izenburua

OINARRIZKO IKERKETA ETA BIKAINTRASUN ZENTROEN KATEGORIAN EGIAZTATUTA DAUDEN ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO EUSKAL SAREKO AGENTEEI EMATEKO LAGUNTZAK (BERC PROGRAMA).

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 15koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, oinarri arautzaileak ezartzen dira Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteei laguntzak emateko (BERC Programa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da 2014-2017 aldirako diru-laguntzen oinarriak ezartzea eta deialdia egitea, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko agenteen jarduera ez-ekonomikoa finantzatzeko (BERC Programa).

Laguntza-agindu honekin,, lortu nahi da lehen mailako ikerketa zientifikoa bultzatzea, Euskadiko ikerketa zientifiko eta teknikoaren kalitatea areagotzeko eta erakartzeko estrategikotzat jotzen diren espezializazio zientifikoko ikertzaileak, nazioartekoak eta bizkortu egingo dutenak.

Hori dela-eta, ekimen hau oso lotuta dago Ikerbasque Fundazioak egiten duen lanarekin, hain zuzen ere Zientziaren Euskal Sistematik kanpoko ikertzaileak erakarri eta bereganatzeko lanarekin. Era berean, ikerketa-zentro horiek eratu eta abian jarri eta gero, mekanismoak ezarri beharko dituzte, lankidetzan jarduteko Euskadiko unibertsitateetako eta beste I+G+B zentro batzuetako ikertzaileekin, eta, horrela, ikertu eta lehiatzeko duten ahalmena bultzatzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetako diru-laguntzen programaren guztizko zenbatekoa, 2014. urterako, 40.000.000 eurokoa izan da. Diru-laguntzak Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak emandako 2014/09/30 ebazpenen bidez esleitu dira. Burutu diren diru-laguntzen laburpena 2014/11/6ko EHAAAn eman zen argitara.

Ekintza hau Berrikuntza Funtzak egindako memoriak ere barne hartzen du (programa 5414).

(BERC) Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko 9 zentrok hartu dute parte Deialdian. Bederatziek lortu zuten diru-laguntza eskuratu ahal izateko gutxieneko kalifikazioa (75 puntu), beraz deialdi honetarako aurreikusitako helburua bete egin da.

1.- Izenburua

BEKA OROKORRAK

2.- Araua

Agindua, 2013ko uztailaren 10ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinarekin deia egiten baita, batetik, 2013-2014 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako, eta, bestetik, 2013-2014 ikasturtean, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egingo dituzten ikasleen –ezgaitasunen bat dutenen– garraio-gastuak ordaintzeko laguntzetarako. (Uztailaren 12ko 133. EHAA).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Administrazio-egoitza Euskadin duten eta unibertsitate-ikasketak (unibertsitate-masterrak barne) autonomia-erkidego honetan edo estatuko beste edozeinetan egiten dituzten ikasleei zuzendutako ikasketetarako laguntzen unibertsitate-beken deialdia. Helburua da aukera-berdintasuna bermatzea unibertsitate-irakaskuntzara sartzeko, eskatzaileen errentaren eta egoeraren arabera zenbait laguntza-sistemaren bidez. Deialdiak beka eskuratzeko zenbait baldintza ekonomiko –errentari eta familia-ondareari dagokienez– eta akademiko ezartzen ditu.

Bestalde, ezgaitasunen bat duten unibertsitate-ikasleentzako garraio-laguntzaren bidez, helburua da unibertsitatera ezgaitasunen bat duten pertsonen berdintasunezko baldintzetan sartzea, garraio egokituaren kostu handia eragozpen erantsia izan gabe. Ezgaitasunen bat duten unibertsitate-ikasleentzako garraiorako laguntza eskuratzeko, mugikortasun urriko gutxieneko puntu batzuk egiaztatu behar dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2013-2014 ikasturterako 26. milioi eurotik gorako zenbateko globala duten laguntzen

deialdiaren azken emaitzak hauek dira:

Aurkeztutako eskaeren kop.:	17.316
Emandako beka-kopurua:	10.877
Ukatutako eskaeren kopurua:	6.439

Laguntza-kopurua, emandako beka-moten arabera:

Irakaskuntza-zerbitzuen prezio publikoak (matrikula)	10.841
Material didaktikorako laguntza	10.285
Hiriarteko joan-etorrirako laguntza	4.113
Eguneroko garraiorako laguntza	570
Egoitzarako laguntza	2.535
Osabidezko laguntza/Soldata	566
Onura akademikoa	4.286

Deialdi honen bidez, administrazio-egoitza autonomia-erkidegoan duten eta baliabide ekonomiko gutxi dituzten herritarrek unibertsitate-hezkuntzara sartzeko aukera dute, betiere, onura akademiko jakina eskuratzen dutenean.

Ezgaitasunen bat duten ikasleentzako 2013-2014 ikasturterako garraiorako laguntzen azken emaitzak hauek dira:

Aurkeztutako eskaeren kop.:	21
Emandako eskaeren kop.:	16
Ukatutako eskaeren kop.:	5

Erabilgarritasuna eta gizartean duten eragina:

Ezgaitasunen bat duten euskal unibertsitate-ikasleei EAEko unibertsitate-zentrora joan-etorriak egiteko garraio-aukera errazten die; horrela, garraio egokituaren gainkostua ez da goi-mailako ikasketak egiteko eragozpen.

1.- Izenburua

2013-2014 IKASTURTERAKO LANKIDETZA BEKAK

2.- Araua

Agindua, 2013ko ekainaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, lankidetzak-beketarako deia egiten duena, 2013-2014 ikasturterako.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikasketa-espeditente onak dituztela egiaztatzen duten eta unibertsitateko ikerketa-taldeetan edo sailetan lankidetzak eskaini eta, aldi berean ikasi nahi duten unibertsitateko ikasleei zuzendutako unibertsitate-bekeren deialdia; hala, hastapenak egingo dituzte beren ikasketekin zerikusi zuzena duten irakasgai edo ikerketa-gaietan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2013-2014 ikasturterako deialdiaren emaitzak honako hauek dira:

- Aurkeztutako eskaeren kop.: 329
- Emandako beka-kopurua: 199
- Ukatutako eskaeren kop.: 130

Deialdi honen bidez, ikasketa-espeditente ona duten unibertsitate-ikasleek hastapenak egin ahalko dituzte beren ikasketekin zerikusi zuzena duten irakasgai edo ikerketa-gaietan; horretarako, unibertsitateko ikerketa-taldeetan edo sailetan parte hartuko dute, ikasten ari diren bitartean.

1.- Izenburua

NAZIOARTEKO UNIBERTSITATE MUGIKORTASUNERAKO BEKAK

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko ekainaren 5ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2013-2014 ikasturtean nazioarteko unibertsitate-mugikortasunerako laguntzak eskatzeko deialdia egiten duena, unibertsitateko ikasleentzat eta goi-mailako arte-ikasketak egiten ari diren ikasleentzat.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Administrazio-egoitza Euskadin duten unibertsitateko ikasleentzako eta goi-mailako arte-ikasketak egiten ari diren ikasleentzako eta ikasketak Euskadiko unibertsitate-zentroetan nazioarteko unibertsitate-mugikortasuneko programen bidez egiten dituztenentzako beken deialdia. Programa horietan aurreikusten da jatorrizko unibertsitateak egindako ikasketak aitortzea.

Deialdiaren helburua da ikasleei unibertsitate-mugikortasuneko programetara sartzeko erraztasunak ematea eta, horretarako, programa horietan jarduteko egon daitezkeen eragozpen ekonomikoak arintzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Unibertsitate-mugikortasunerako beken deialdi hau 2013-2014 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitateak Donostian duen TECNUN-Ingeniarien Goi-eskolan goi-mailako ikasketak edo goi-mailako arte-ikasketak egiten ari diren ikasleei zuzenduta dago. Horiez gain, 2013-2014 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako arte-ikasketetarako zentroetan ikasketak egiten ari diren ikasleek ere izango dute laguntza horiek jasotzeko aukera, jatorrizko unibertsitateak edo zentroak nazioarteko unibertsitate-mugikortasun programetara atxikitzen badira eta goi-mailako ikasketa horiek aitortzen badituzte. Horrela, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak (3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa) aurreikusten duen nazioarteko unibertsitate-mugikortasuna sustatzen da.

2013-2014 ikasturterako deialdiaren azken emaitzak honako hauek dira:

- Aurkeztutako eskaeren kop.	1.611
- Emandako beka-kop.	1.438
- Ukatutako eskaeren kop.	173



1.- Izenburua

MATERIAL ARKEOLOGIKO EDOTA PALEONTOLOGIKOAK INBENTARIATZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko irailaren 3koa (EHAA 175/2014 zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako arkeologia esku-hartzeen ondorioz aurkitzen diren interes arkeologiko eta paleontologikoa duten ondasun guztiak behar bezala tratatuta eta inbentarioa eginda entregatu behar dira Eusko Jaurlaritzak izendatzen dituen lurraldeko museo edo zentroetan. Betebehar hori esku-hartze arkeologikoa gauzatzeko baimena duen titularrei dagokie. Alabaina, prozesu hori dakartzan kostu ekonomikoak direla eta, materialak entregatu aurreko tratamendu- eta inbentario-lan hori moteldu egiten dira.

Hori guztia dela eta, programa honen helburu nagusia da esku-hartzeen arduradunei baliabide ekonomikoak ematea, materialak eta haiekin batera dagokien inbentarioa xehea eta sistematikoa, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak normalizatutako formatu digitalean, entregatzen direla ziurtatzeko. Modu horretan, Administrazioak interes arkeologiko eta paleontologiko duten ondasunak era eraginkorragoan babes ahal izango du eta hedapen eta ikerketa lanetarako denontzako eskuragarri jarriko ditu .

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urteko deialdian aurkeztutako bederatzi proiektuetatik, zazpi lortu dute diru-laguntza. Emandako diru-laguntzen zenbateko osoa 47.433 eurokoa izan da, beraz, programak eskuragarri zuen diru-kopurua ez da agortu.

Programaren magnitudeei erreparatuz, aurrekontuen memorian 10 zen adierazitako magnitudea, beraz, ez dugu aurreikusitako helburua bete-betean lortu, zeren eta emandako diru-laguntzak 7 izan dira.

Programaren erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, programa honi esker egindako inbentarioek Kultura Ondarearen Zentroak eta ondasunon gordailu zentroen tresna komuna den informazio sistema elikatzen dute, zeina erabiltzen duten materialak kontserbatzeko eta herritarrentzako eskuragarri jartzeko. Gainera, tresna horri esker, aurki izango dugu aukera Euskadiko material arkeologikoen katalogo bateratuta eta birtuala Interneten argitaratzeko, alegia, komunitate zientifikoaren eta publiko orokorraren informazio hori eskuragarri jartzeko.

Halaber, diruz lagundutako proiektu gehienetan parte hartzen duten ikerketa-taldeak ikerlari profesional gazteek - batzuk tesiak egiten ari dira eta beste batzuk doktoratu berriak - osatuta daude. Diru-laguntza hauek ikerketa jarduera hori enpresa-testuinguru batean abiatzea edota sendotzea ahalbidetzen diete. Ildo horretan, eskatzaileen profilari erreparatuz, nabarmentzekoa da eskatzaileak Euskadin finkatutako mikroenpresak edota autoenpleguan aritzen diren profesionalak (Baltzu Mugatuak, Kooperatiba Txikiak, eta pertsona fisiko autonomoak) izaten ohi direla. Arrazoi horrengatik garrantzitsua da programa honek egiten duen ekarpena gure inguruko ezagutzaren ekonomiaren sektore horren sostenguaren mesedean.



1.- Izenburua

EUSKADIKO MUSEO ETA BILDUMEN ERREGISTROAN IZENA EMAN DUTEN MUSEOENTZAKO ETA BILDUMENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa (EHAA 117/2014 zk.)

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Museoen Zentroak eskumena du EAEko museo eta bildumen diru-laguntzak kudeatzeko. Diru-laguntza hauen bidez, jarduera-ildo estrategiko hauetan eragina izango duten proiektuak egin daitezzen bultzatu nahi da:

- a) Bilduma kudeatzea eta hari buruz jakiteko modua hobetzea.
- b) Erakusketa iraunkorrak hobetzea eta aldi baterako erakusketak antolatzea.
- c) Funtzio hezitzailea, ludikoa eta kulturala sustatzea beren jardun-eremuan
- d) Beren jarduera-eremuarekin zerikusia duen ezaguera sortzea eta hedatzea
- e) Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Araututako diru-laguntzak eskuratzeko aldera, 2014ean 24 entitate aurkeztu ziren, publikoak zein pribatuak; entitateok diru-laguntzak eskatu zituzten 40 jarduera egiteko. Aurreko ekitaldian, aldiz, 26 entitate eta 48 jarduera aurkeztu ziren. Beraz, onuradun kopuruak behera egin zuen, bai eta proiektu kopuruak ere, aurrekontu-programaren magnitudeetan aurreikusi zen moduan. Etorkizunera begira, egonkortasuna aurreikusten da, onuradunak Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatuta dauden museo edo bildumen titularrak direla kontuan hartzen badugu; hau da, onuradun kopuru zehatz bat dago eta, beraz, ildo estrategikoei dagozkien magnitudeak aurreikusi daitezke.

Emandako diru-laguntza kopuru osoa 600.000 eurokoa izan zen eta 37 entitateen artean honela banatu zen:

Proiektuak	Esleitutakoa	%	Magnitudea
1. Bilduma kudeatzea	151.000	25,17	10
2. Erakusketak	222.439	37,08	12
3. Funtzio hezitzailea	214.303	36,55	14
4. Ezaguera sortzea eta hedatzea	7.258	1,20	1
5. Kudeaketa hobetzea			0
GUZTIRA	600.000	100%	37

1.- Izenburua

TOKI-ERAKUNDEEI BEREN ARTXIBO SISTEMA JARTZEKO EDOTA SENDOTZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.-Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 23koa (EHAA 160/2014 zk.)

3.-Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak Euskadiko Artxibo Sistemaren artxibo politikan egiteko garrantzitsua dauka eta epe erdi eta ertainera artxibo zerbitzuak egonkortu eta sendotzeko ezinbesteko tresna da. Dirulaguntza deialdiaren helburuak dira, besteak beste, EAeko udal eta udalaz gaindiko erakundeetan (mankomunitate, administrazio-batzar...) ondoko jarduerak bultzatzea:

- a) Artxibo-zerbitzuak abian jartzea, antolatzea edota mantentzea.
- b) Dokumentu-funtsak baloratzea eta aukeratzea.
- c) Kultura-zabalkunderako artxibo-jarduerak bultzatzea.
- d) Mankomunitatutako artxibo-zerbitzuei eustea.
- e) Digitalizatzeko jarduerak burutzea.

Dirulaguntza aginduaren zenbateko 320.000 eurokoa izan da, eta aurkeztutako programa bakoitzak gehienez ere aurrekontuaren %50a jaso du, muga 20.000 eurokoa delarik.

4.-Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an 78 erakunderen 90 eskaera jaso dira eta guztira 78 programa izan dira diruz lagundutakoak; halaber, 92 udalerritara heldu da laguntza. Gero eta tokiko erakunde-mota gehiago dira (udal, mankomunitate, kontzeju, administrazio-batzar) programak aurkeztu dituztenak.

Programen kopuruak hauek dira: a) Artxibo-zerbitzuak abian jartzea, antolatzea edota sendotzea (28 programa). b) Dokumentu-funtsak baloratzea eta aukeratzea (5 programa). c) Artxibo-dokumentuak digitalizatzea (26 programa). d) Kultur zabalkunderako jarduerak (11 programa). e) Artxibo-zerbitzuak mantentzea, udalenak eta mankomunitatuak (8 programa).

1.- Izenburua

PUBLIKOAK EZ DIREN ARTXIBOAK ANTOLATU ETA DIGITALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 23koa (EHAA 160/2014 zk.)

3.-Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduak artxibo politikaren atal egonkor bat indartzen du epe luzera: artxibo-funtsen jabe pribatuei laguntzea (Euskal Herriaren historia berezia dela-eta bereziki ugariak baitira). Helburuei dagokionez: partikular, familia, erakunde, elkarte eta abarrekin lankidetzan aritzea beraien jabegoko artxibo funtsak antolatu eta ondoren hedatzeko, batez ere EAHko webgunearen bidez. Programa gehienen emaitza izaten da artxiboaren inbentarioa, horixe baita baliabide nagusia ondoren kontserbazio edota digitalizazio programak diseinatu ahal izateko.

4.-Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an 19 erakundek guztira 23 eskaera aurkeztu dituzte. Aurrekontuaren (170.000 €) mugak kontuan izanda, 19 proiektu izan dira diruz lagundu ahal izan direnak. Mota honetako programa baten arrakasta jarraitzean eta egonkortasunean datza. Helburua da artxibo jabe eta erakunde partikularrak (fundazio, sindikatu, elkarte... animatzea beraien artxiboak zaintzera erabilgarri izan daitezen, gizarte osoaren mesedetan. Lortutako emaitzak mota askotarikoak dira: Betiko antolatzen da jabe pribatuen esku dagoen ondare dokumental aberatsaren zati bat; Ekimen pribatua sektore honetan inbertitzera animatzen da; Sare publikoetan ondarearen alde oso esanguratsuak integratzen dira, eta herritarren esku jartzen; eta Jaurlaritzaren ikerketa zerbitzua aberasten da Internet bidez (Dokuklik), jada funtsezko erreferentzia bihurtu da Euskadiri buruzko edozein ikerketa egiteko orduan.



1- Izenburua.

EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIETAKO LIBURU-FUNTSAK BERRITU EDO/ETA HANDITZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2- Araua.

AGINDUA, 2014ko ekainaren 4koa (EHAA 110/2014 ZK.)

3- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoak funts bibliografikoz hornitzea.

4- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean.

Aurrekontuetako magnitudeetan funtsak berritzeko 175 eta liburutegi sortu berrientzako 0 aurreikusi ziren.

Funtsak berritzeko 174 eskaera aurkeztu ziren eta bat bera ere ez liburutegi sortu berrietarako. Jasotako eskaera guztiei (174) eman zitzaizen diru-laguntza.

Horrela, 178.000 ale berri gehitu ziran 2014 Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarera eta mailegu arrunten kopuruak mantentzea lortu zen.

5- Programa mantendu edo kentzea.

11/2007 LEGEA, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa, 20. artikuluko 4. puntuan, zera zehazten da: "Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak, urtero, laguntza-programak eta zerbitzuak jarriko ditu liburutegientzat bere aurrekontuetan, bereziki informatika-sareak antolatzeke, irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak egiteko, funtsak eskuratzeko eta beste helburu batzuetarako".

Liburutegietako funtsak berritu edo/eta handitzeko diru-laguntza oinarritzko eta ezinbesteko ildo da, legez, Liburutegi Zerbitzuak esleiturik dituen zereginen artean.



1- Izenburua.

IRAKURKETA SUSTATZEKO ETA EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREAN TXERTATUTA DAUDEN LIBURUTEGI PUBLIKOEN ZERBITZUAK ERABILTZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2- Araua.

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa (EHAA 122/2014 ZK.)

3- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak.

Haur eta gazteen artean irakurketa eta liburutegi publikoen erabileraren sustapena eta garapena lantzea.

4- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean.

150 eskaera espero baziren ere azkenean 147 izan dira burutu direnak.

Emaitza zertxobait txikiagoak lortu dira, baina uste da ez zaiola garrantzirik kendu behar urtez urte zifra antzekoak eskaintzen dituen laguntza horri. Udalen eta Eusko Jaurlaritzaren sistema informatikoen arteko bateraezintasun arazoak direla eta kexak jaso dira, eskatzaile guztiek eskaera epe barruan bete duten arren. Diru-laguntza telematikoa denez geroztik behin eta berriro errepikatu izan den kontua da. Arazo informatikoak mantentzen dira, nahiz eta urtero gutxituz joan.

Horrekin batera, aipatu antolatutako ekintzen emaitzak eta horiekin lortutako eragin soziala ona izan dela. Irakurketa sustatzea eta liburutegi zerbitzuak erabiltzea liburutegi publiko ororen egintzen ardatz dira.

5- Programa mantendu edo kentzea.

11/2007 LEGEA, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa, 20. artikuluko 4. puntuan, zera zehazten da: "Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak, urtero, laguntza-programak eta zerbitzuak jarriko ditu liburutegientzat bere aurrekontuetan, bereziki informatika-sareak antolatzeko, irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak egiteko, funtsak eskuratzeko eta beste helburu batzuetarako".

Beharrezkoa da legezko agindu hori kontuan hartzea eta programa horiekin jarraitzea, jarduera-ildo hauen bidez lortu nahi diren helburuak Administrazio Publikoen inplikazio zuzena eskatzen dutelako.



1- Izenburua.

EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIETAN TEKNOLOGIA BERRIAK EZARTZEKO EDOTA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2- Araua.

AGINDUA, 2014ko ekainaren 4koa (EHAA 110/2014 ZK.)

3- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak.

Liburutegi publikoetan informazio teknologien ezarpena eta garapena ahalbidetzen dituzten ekintzak lagundu.

4- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean.

Programak 150 ordenagailu eta 300 eskaner, irakurgailu optiko etab.-en berriztatzea aurreikusten zuen.

108 eskaera izapidetu dira, eta horien bidez mahai-gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, monitoreak etab. erosteko 254 laguntza eman dira. Horiekin batera, eskanerrak, irakurgailu optikoak, liburu elektronikoak, lapurretaren aurkako sistemak etab. erosteko 460 laguntza eman dira.

Horrek hobekuntza nabarmena suposatu du bai liburuzainen eguneroko lanean baita erabiltzaileen kontsultetan eta funtsen erabileran ere. Beraz, herritarrei zuzendutako liburutegi zerbitzuen eskaintzaren onerako izango da.

5- Programa mantendu edo kentzea.

11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa, 20. artikuluko 4. puntuan, zera zehazten da: "Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak, urtero, laguntza-programak eta zerbitzuak jarriko ditu liburutegientzat bere aurrekontuetan, bereziki informatika-sareak antolatzeke, irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak egiteko, funtsak eskuratzeko eta beste helburu batzuetarako".

Beharrezkoa da legezko agindu hori kontuan hartzea eta programa horiekin jarraitzea, jarduera-ildo hauen bidez lortu nahi diren helburuak Administrazio Publikoen inplikazio zuzena eskatzen dutelako.

Arlo ezberdinetan egiten den teknologia berrien erabilerak (kudeaketa prozesuetan, erabiltzaileenganako zerbitzuetan, sareen arteko integrazioan, etab.-etan) liburutegien munduan bultzada handia suposatzen du. Horrela, egiaztatzen da diru-laguntza horri esleitutako zuzkidura ekonomiko handitzea interesgarria litzatekeela.

1.- Izenburua

MUSIKA JARDUERA PROFESIONALA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 30ekoa, Kultura sailburuarena, musika jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena (EHAA 109 zkia., 2014ko ekainaren 11an).

3.- Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

Programa honen bitartez, Musika jarduera profesionalak sustatu nahi dira, hain zuzen ere partituren edizio inprimatuak, musika banakako proiektuak, musika ekimen enpresarialak eta musika programazioa.

2014an programa honen gehieneko zenbateko orokorra 445.000 eurokoa izan zen hasierako deialdian, modalitateen arabera honela banaturik:

- 30.000 € partiturak argitaratzeko
- 100.000 € banakako musika proiektuak
- 175.000 €, musika proiektu enpresarialak
- 140.000 €, musika programazioa

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, nahiz eta modalitateen arteko aldaketa txiki batzuk egin.

Deialdi honen bitartez 56 pertsonak edo entitatek jaso dute Musika jardueretarako laguntza, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra dela.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Partiturek editatzeko: 10 / 6 / 30.000 € / 30.000 € / 5.000 €
- Banakako proiektuak: 42 / 24 / 100.000 € / 100.000 € / 4.167 €
- Ekimen enpresarialak: 18 / 15 / 175.000 € / 175.000 € / 11.167 €
- Musika programazioa: 15 / 11 / 140.000 € / 140.000 € / 12.727 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako musika proiektu kop. urtean 56; emaitza 56
- Lagundutako musika kontzertu kop. urtean 60; emaitza 49

1.- Izenburua

DANTZA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko deialdia egin eta araubidea ezartzeko dena. (EHAA 112 zenbakia, 2014ko ekainaren 16an).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, dantza jarduerak sustatu nahi dira, hain zuzen ere honako jardueramodalitate hauek bultzatuz: koreografia sorkuntza laburrak, konpainiak sendotzea, ekoizpena eta profesionalentzako etengabeko prestakuntza eta laguntza.

2014an programa honen gehieneko zenbateko orokorra 400.000 eurokoa izan da, modalitateen arabera honela banaturik:

- 28.800 euro koreografia sorkuntzarako
- 114.000 euro konpainiak sendotzeko
- 172.000 euro dantza-lanak ekoizteko
- 85.200 euro dantza profesionalentzako etengabeko prestakuntza eta laguntzarako

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, nahiz eta modalitateen arteko aldaketaren bat egin. Deialdi honen bitartez 34 entitate edo pertsonak jaso dute Dantzarako laguntza, beraz, esan ahal dugu, programa oso eraginkorra dela.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Sorkuntza:	23 // 9 // 28.800 € // 28.800 €
- Konpainiak sendotzea:	4 // 3 // 114.000 € // 114.000 €
- Ekoizpena:	14 // 14 // 172.000 € // 188.292 €
- Etengabeko prestakuntza :	9 // 8 // 85.200 € // 68.908 €

**Dantza profesionalentzako etengabeko prestakuntza eta laguntza modalitatean banatu gabe gelditu zen kopurua -16.292,00 euro- dantza-lanak ekoizteko modalitatera bideratu zen, Aginduaren 2.2 artikulua ezarritakoari jarraituz.*

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako dantza proiektu kop. urtean 12, emaitza 17
- Lagundutako dantza emanaldi kop. urtean 68, emaitza 67 (“Dantza Bultzatuz” programaren bidez lagunduak)
- Dantzako profesionalentzako etengabeko prestakuntzarako eta laguntzarako proiektu kopurua urtean 12, emaitza 8
- Egindako koreografi pieza kop. urtean 9, emaitza 9

1.- Izenburua

IKUS-ENTZUNEZKOEN ARLOAN SORRERA, GARAPEN ETA PRODUKZIOAREN ALDEKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 4koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 107 zkia., 2014ko ekainaren 9koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburu nagusia kulturaren ikuspegitik gure lurraldean hain garrantzitsu eta beharrezkoa den ikus-entzunezko azpiegitura finka dadin sustatu eta laguntzea da. Horretarako, deialdi honen bidez, ondorengo ekimenak sustatzen dira:

1.- Proiektuen garapena:

- a) Zinema edota telebistarako lanak: banakako proiektuak eta sailak izan daitezke, fikziozkoak, animaziozkoak zein sortze-dokumentalak.
- b) Multimedia-lanak: eduki artistiko eta kulturalako proiektuak.

2.- Produkzioa:

- a) Zinemarako diren fikziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.
- b) Zinemarako diren animaziozko film luzeak: ikus-entzunezko obra, hirurogei minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan merkatal ustiapenerako dena.
- c) Sortze-dokumentalak: Errealitatetik hartutako gaia duten proiektuak; lanak originala izan behar du eta gai zehatz bati buruzko ikerketa edo azterlana, gutxienez merkataritza-ordu beteko iraupena dutenak eta zinema edota telebistarako direnak.
- d) Film laburrak: Edozein euskarritan egindako filmak hartuko dira, iraupen gomendatua 60 minutu baino gutxiago dutenak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 1.800.000 eurokoa izan zen, eta azkenean 1.800.000 euro banatu dira.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Garapenak: 46, 7, 100.000 €

- Zinemarako fikziozko film luzeak: 17, 4, 1.000.000 €
- Animazioa: 4, 2, 400.000 €
- Dokumentalak: 29, 6, 180.000 €
- Laburmetraiak: 43, 11, 120.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako ikus-entzunezko proiektu kop. urtean 22, emaitza 30

1.- Izenburua

ANTZERKIKO PROFESIALEEN PRESTAKUNTZA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko martxoaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, antzerkiko profesionalak prestatzeko programa eta jarduerak garatzeko 2014. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. (EHAA 53 zkia., 2014ko martxoaren 18koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, antzerkiko profesionalak prestatzeko dauden egitarauak eta jarduerak sustatu nahi dira, antzerki arloan dauden prestakuntza beharrei erantzun nahian.

2014an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 88.000 eurokoa izan da, diru-laguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 83.000 euro antzerkiko profesionalen prestakuntza integrala lortzera zuzendutako ikastaroak antolatzeko
- 5.000 euro antzerkiko profesionalen prestakuntzarekin lotutako arlo zehatzeko prestakuntza jarduerak antolatzeko

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Agindu honetarako aurreikusita zeuden baliabide ekonomiko guztiak erabili dira, antzerkiaren munduan prestakuntza ematen duten talde ezberdinei diru-laguntzak emateko, euren jarduerak era eraginkorragoan gauzatu ahal izateko. Egitarau hauen bitartez 149 ikaslek jaso ahal izan dute profesionalak izateko beharrezkoa den hasierako prestakuntza eta 125ek prestakuntza espezifikoa. Ondorioz, lortutako emaitzak positibotzat jo daitezke.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Prestakuntza integrala: 6, 6, 83.000 €, 83.000 €
- Prestakuntza arlo zehatzak: 4, 2, 5.000 €, 5.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Antzerkirako prestakuntza integrala helburu duten ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean: 75; Emaidza 149
- Antzerkirako prestakuntza berezitua helburu duten ikastaroetan izandako ikasle kop. urtean: 30; Emaidza: 125



1.- Izenburua

EGOITZA PROGRAMAK EAEKO ANTZOKIETAN
--

2.- Araua

<p>AGINDUA, 2014ko martxoaren 5koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako 2014. Urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 49 zkia., 2014ko martxoaren 12koa)</p>

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

<p>Programa honen bitartez erantzun nahi izan zaio sektoreak sarritan errebindikatu duen sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana bultzatzearen beharrari.</p>
--

<p>Sektore publikoa da nagusiki antzokien jabea, aldiz produkzioa sektore pribatuen eskuetan dago. Arte eszenikoen iraupenerako ezinezkoa dira zubiak eraikitzea bi mundu horien artean eta egoitza programak tresna ezin hobeak dira ditugun bitartekoei ahal den etekin handiena ateratzeko.</p>
--

<p>2014ean programa honen gehienezko zenbateko orokorra 60.000 eurokoa izan da.</p>

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

<p>Programa honen bitartez 3 egoitzen programen oinarriak sendotzea lortu da eta etorkizun handia izan dezakeen lan ildo irekitzea ere.</p>

<p>Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:</p>
--

<p>- Egoitza programak: 6, 3, 60.000 €, 60.000 €</p>
--

<p>Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:</p>

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Antzerki konpainien egoitza programa kop. Urtean, antzoki publikoetan: 3; Emaitza 3 |
|---|

1.- Izenburua

KALE ANTZERKIA BULTZATUZ

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, «Kale antzerkia bultzatuz» programari 2014. Urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.(EHAA 101 zkia., 2014ko maiatzaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Oraingo krisi ekonomikoak eragin handia du arte eszenikoen alorreko kultur programazioan, eta horrek kalte handia egiten dio besteak beste kale antzerki arloko enpresa-egituraren jasangarritasunari. Egoera honen aurrean kezkatuta eta jakitun udalek ahalegin ekonomiko handia egiten dutela, programa hau dugu aire zabaleko arte eszenikoen programazioak bultzatzeko eta zirkuitu baten oinarriak sendotzeko.

2014an programa honen gehieneko zenbateko orokorra 75.000 eurokoa izan da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honen bitartez udaletako kale antzerki arloko programak mantentzea eta hainbat kasutan indartzea lortu da. Guztira 160 emanaldi lagundu dira 33 udaletan.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Kale Antzerkia bultzatuz: 34, 33, 75.000 €, 75.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Kaleko ikuskizun eszenikoetako kontratu kop. Urtean: 134; Emaitza 160

1.- Izenburua

ANTZERKI PRODUKZIOAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, antzerki-produkziorako 2014. Urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 101 zkia., 2014ko maiatzaren 30ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez, izaera profesionala duten antzerki-jarduerak sustatu nahi dira, produkzioa ahalbidetzen duten prozesu desberdinak diruz lagunduz.

2014ean programa honen gehieneko zenbateko orokorra 787.500 eurokoa izan da, diru-laguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 40.000 euro konpainia sortu berrien produkzioetarako
- 150.000 euro produkzioetarako
- 187.500 euro hitzartutako zirkuitua duten produkzioetarako
- 410.000 euro finkatutako antzerki-taldeentzako jarduerarako

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honetako lau modalitateekin lortu dugu antzerki arloan dauden egoera ezberdinei era egokian erantzutea. Konpainien produkzioak lagundu ahal izan dira, konpainia sortu berriek aukera izan dute beren lehen produkzioak gauzatzeko, finkatutako konpainiei eskaini zaie laguntza programa iraunkorragoa beren proiektuak bideratu ditzaten eta gainera hitzartutako zirkuitua duten produkzioetarako laguntzekin lortu dugu bermatzea diruz lagundutako produkzioen zabalkuntza gure erkidegoko antzokietan.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Konpainia sortu berrien produkzioak: 9, 2, 40.000 €, 16.851 €
- Produkzioak: 21, 9, 150.000 €, 209.385 €
- Hitzartutako zirkuitua duten produkzioak: 4, 4, 180.000 €, 151.264 €
- Finkatutako antzerki taldeak: 7, 4, 410.000 €, 410.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Sortutako antzerki ekoizpen berri kop. Urtean 16; Emaitza 19

1.- Izenburua

ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezarri eta arautzen duena (EHAA 102. zk., 2014ko ekainaren 2koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua 2014an zehar arte plastiko eta ikusizkoen arloan burutu diren jardueretarako diru-laguntzak ematea izan da. Diruz laguntzen diren modalitateak honako hauek dira:

1. Sustapen-zabalkundearen modalitatea: 81.000€
2. Argitalpenen modalitatea: Euskarri desberdinak erabiliz egindako argitalpenak egitea, beren xedek Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea izanik. 95.000 €
3. Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea: proiektuak egitea, ardatza baldin bada arte ekoizpena edo ikerketa proiektuak lantzea. 240.000 €

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honen helburua, hiru modalitateen bitartez, ikusizko arteen arloko zabalkunde eta ekoizpen beharrei erantzuten saiatzea da, hiru modalitateak, zabalkunde, argitalpenak eta ekoizpena, oso finkatuta daude eta.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Sustapen-zabalkuntza:	24, 8,	91.000€,	69.668€
- Argitalpenak:	45, 15,	95.000€	106.332€
- Ekoizpena:	90, 37,	240.000€	240.000€

Guztira: Eskaerak: 159. Baiezkoak: 60. Aurrekontua: 416.000 €. Emandakoa: 416.000€.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Ikusizko arteetan sorkuntza eta ekoizpenerako diruz lagundutako proiektu kop. urtean 26, emaitza 37
- Ikusizko arteen zabalkunderako lagundutako proiektu kop. urtean 25, emaitza 23

1.- Izenburua

GURE ARTEA SARIAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko martxoaren 7koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak arautu eta horietarako deialdia egiteko dena. (EHAA 69.zk. 2014ko apirilaren 9koa)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburua Arte Plastikoak eta Ikusizkoak sustatzea da. Haien bitartez saritutakoak egindako lana aitortu nahi da eta Euskadiko arte garaikidean eta kulturaren izan duten ekarpena errekonozitu.

Hiru sari banatzen dira, modalitate bakoitzeko bana. Deialdia urtero argitaratzen da.

Modalitateak eta zenbatekoak:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: artista saritzen da bere ibilbide artistiko osoagatik. 25.000€
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: artista saritzen da azken urteetan egindako lanarengatik. 25.000€
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: edozein agente saritzen da Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik. 15.000€

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Saridunak 2014n modalitateka honako hauek izan dira:

- a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: Juan Luis Moraza
- b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: Inazio Eskudero
- c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Basauriko Kultur Etxea. "Beca Juan y Pablo de Otaola"

2014ko sari- emate ekitaldia Donostiako San Telmo Museoan egin zen.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Urtean emandako Gure Artea sari kop. : 3, Eraitza: 3
- Urtean aurkeztutako Gure Artea kandidatura kop.: 15, Eraitza: 23
- Euskadiko prentsan saridunen eta bere arte lanen aipamen kopurua urtean 8, Eraitza: 8
- Gure Artea sari emate ekitaldian bertaratutakoen kop. Urtean: 120, Eraitza: 100

1.- Izenburua

LITERATURA ARGITALPENETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean literatura argitalpenetarako diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 101 zkia., 2014ko maiatzaren 30ekoa)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Kalitatezko euskal literaturaren ekoizpena eta euskal argitaletxeen sektorea mantentzea bultzatzen da diru-laguntza horien bidez.

2014an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 626.800 eurokoa izan da, diru-laguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 511.800 euro euskarazko argitalpenak
- 115.000 euro gaztelaniazko argitalpenak

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honetako bi modalitateekin lortu da literatura-liburu kopuru handia merkaturatzea. Horien artean asko dira jatorriz euskaraz edo gaztelaniaz egindakoak, eta honek ekartzen du euskal kulturaren zabalkundea

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Euskarazko argitalpenak: 24, 19, 511.800€, 511.800€
- Gaztelaniazko argitalpenak: 16, 13, 115.000€, 115.000€

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak.

- Lagundutako argitalpen proiektu kopurua urtean: 500; Emaidza 747.



1.- Izenburua

EUSKADI LITERATURA SARIAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko apirilaren 30ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014ko urtean Euskadi literatura-sariak arautu eta horretarako dei egiten duena EHAA 83 Zkia, 2014ko maiatzaren 6a).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadi literatura-sariak, aurreko urtean argitaratutako literatura lanen kalitatea saritzen dute, horrela literaturaren alorreko idazle, itzultzaile eta ilustratzaileen sorkuntza sustatzeko.

2014an programa honen gehienezko zenbateko orokorra 172.000 eurokoa izan da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deitutako zazpi modalitateetan esleitu dira sariak:

- Euskarazko literatura: Bernardo Atxagaren *Nevadako egunak*.
- Gaztelaniazko literatura: Idoia Estornésen *Cómo pudo pasarnos esto*.
- Euskarazko haur eta gazte literatura: Harkaitz Canoren *Orkestra lurtarra*.
- Euskarazko literatura itzulpena: Iñigo Roqueren *Gauzen ordena naturala*.
- Literatura lanaren ilustrazioa: Maite Gurrutxagaren *Habiak*.
- Euskarazko saiakera: Joseba Gabilondoren *New York – Martutene*.
- Gaztelaniazko saiakera: Jon Juaristiren *Espaciosa y triste*.
-

Aurrekontuen memorian agertzen den magnitudea 8koa bada ere, 7 modalitaterentzako baino ez da egin deialdia eta 7ak eman dira. Beraz, 150.000 euro gastatu dira.

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Urtean emandako Euskadi literatura sari kop.:8, emaitza 7.

1.- Izenburua

KULTURA-ARLOKO JAIALDI, ZIKLO, LEHIAKETA, SARIKETA ETA KULTURA-EKINTZA BEREZIAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko irailaren 9koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean kultura-arloko jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak antolatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena. EHAA 174 Zkia (2014ko irailaren 15a)

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen xedea izan da zein bere arlo kulturean espezializazio-maila edo berezitasun handia ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko kultur panoramarako interes berezia ere baduten jaialdi, ziklo, lehiaketa, sariketa eta kultura-ekintza bereziak 2014an zehar Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean antolatzeko diru-laguntzak emanaz sustatzea, bereziki Ikus-entzunezkoen, Antzerkiaren, Dantzaren, Musikaren, Ikusizko Arteen eta Literaturaren arloetan. Gizartea oro har kulturaren arlo guztietako ekoizpenetara iristen laguntzeko bidea bilatu nahi izan da horrela.

2014ko ekitaldirako programa honen aurrekontua 350.000 €-koa izan da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdiaren izaera dela eta, arloka heterogeneotasun handia izan da. Jarduerari begiraturaz 48 jardueretatik 35ek eragile pribatuak zituzten titular eta 13k berriz eragile publikoak. Bizkaian 28 jarduera gauzatu dira, Gipuzkoan 18 eta Araban, berriz, 2.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- 122, 48, 350.000 €, 349.999 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako nazio eta nazioarteko jaialdi kop. urtean 65, emaitza 48

1- Izenburua

KULTURA SORKUNTZA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, kultura sorkuntza bultzatzeko 2014. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 141 zkia., 2014ko uztailaren 28ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez kultura sorkuntza sustatu nahi da antzerkirako testuak, gidoi zinematografikoak eta musika-konposizioak egiteko bitartekoak eskainiz.

2014ko ekitaldian gehieneko zenbateko orokorra 240.000 eurokoa izan da, diru-laguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 52.800 euro antzerkirako testuak sortzeko
- 142.200 euro gidoi zinematografikoak sortzeko
- 45.000 euro musika-konposizioak sortzeko

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honetako hiru laguntza modalitateen bitartez Euskadiko kultura ondarea osatuko dituen 34 obra berri sortzen lagundu dugu (8 antzezlan berri, 11 gidoi zinematografiko eta 15 musika-konposizio).

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Antzerkirako testuak: 30, 8, 52.800 €, 52.800 €
- Gidoi zinematografikoak: 97, 11, 142.200 €, 142.200 €
- Musika-konposizioak: 37, 15, 45.000 €, 45.000 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Egindako musika sorkuntza kop. urtean: 8; Eraitza 15
- Sortutako gidoi zinematografiko kop. Urtean: 10; Eraitza 11
- Sortutako antzerki testu berri kop. Urtean: 8; Eraitza 8

1- Izenburua

SORMEN LANTEGIAK

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 11koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, «Sormen Lantegiak» programaren barruan 2014. urtean diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena (EHAA 112 zkia., 2014ko ekainaren 16koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bitartez eragin nahi da kultura-edukiak ekoizteko formetan, egituretan eta eran berrikuntza sustatzeko, betiere oinarri hartuta sormena, ikerketa, esperimentazioa eta diziplina-arteko elkarrekintzaren sustapena. Labur esanda, diru-laguntzak emateko deialdi honen xedea da arte-berrikuntzan espezializatutako zentroak sustatzea eta berrikuntza, diziplinartekotasuna eta alde anitzeko elkarriketa oinarri dituen sormen- eta ekoizpen-eremu bat bultzatzea.

2014ko ekitaldian gehienezko zenbateko orokorra 1.000.000 eurokoa izan da, diru-laguntza modalitate bakoitzera honako kopuruak zuzendu direlarik:

- 549.000 euro Sorgune modalitatean
- 51.000 euro Ikertu modalitatean
- 400.000 euro Arragoa modalitatean

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programa honetako hiru laguntza modalitateen bitartez berrikuntzan espezializatutako 13 zentro laguntzeaz gain 13 sormen prozesu eta 22 ekoizpen laguntzen ditugu beti ere sormena, ikerketa, esperimentazioa eta diziplina-arteko elkarrekintza sustatzeko asmoz.

Hurrenez hurren: Arloa, Eskaerak, Baiezkoak, Aurrekontua eta Emandakoa:

- Sorgune: 23, 13, 549.000 €, 533.163 €
- Ikertu: 29, 13, 51.000 €, 39.000 €
- Arragoa: 63, 22, 400.000 €, 427.837 €

Aurrekontu programan jasotako indikatzaileak eta magnitudeak eta lortutako emaitzak:

- Lagundutako sorkuntza gune kop. urtean: 8; Emaidza 13
- Lagundutako sorkuntza ikerketa proiektu kop. urtean: 12; Emaidza 13
- Lagundutako kultura proiektu berritzaile kop. urtean: 16; Emaidza 22



1.- Izenburua

GAZTERIA ARLOKO EGITARAUAK ETA JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko abenduaren 17koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldeaz gaindiko urteroko jarduera programak egikaritzen laguntzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastaroak egitea, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak, eta eragina gizartean

88 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 65ek lortu dute diru-laguntza, eta beste 23ei hainbat arrazoiengatik ukatu zaie (deialdian eskatutako gutxieneko autofinantzaketara ez iristeagatik, jardueren izaera eta xedeak aurreikusitako jarduera-esparruekin lotura zuzena ez edukitzeagatik edo lurralde historiko bakar bateko hartzaileentzat izateagatik). Betetze-maila egokia jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 60 izanik 65 proiektu lagundu baitira diruz. Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 479.827 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (480.000 €) %99,96, alegia.

- a) Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 287.280 euro.
- b) Dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak: 18.900 euro.
- c) Azkenik, urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 173.647 euro.

Diruz lagundutako jarduera horiek erabilgarriak eta beharrezkoak dira gazte-elkartegintza sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan lekua duten jarduerak eta programak bereziki, lehen deskribatutakoak.

Alde horretatik, eragin handia dute jarduerak horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

1.- Izenburua

GAZTE-TALDEEN ARTEKO MUGIKORTASUNERAKO EDO ELKARTRUKERAKO JARDUERAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko abenduaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako gazte-taldeen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak gauzatzen laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

28 diru-laguntza eskaera erregistratu dira. Horietatik 18k diru-laguntza lortu dute, 2k ezetz esan diote emandako diru-laguntzari eta 8ri hainbat arrazoiengatik ukatu zaie (deialdian eskatutako gutxienerako autofinantzaketara ez iristegatik, jardueren izaera eta xedea deialdiarekin bat ez etortzeagatik edo eskatutako parte-hartzaile kopurua ez edukitzeagatik). Betetze-maila egokia jotzen da, aurrekontu-programaren neurria 20 izanik 18 proiektu lagundu baitira diruz. Halaber, emandako diru-laguntzen zenbatekoa 111.577 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (125.000 €) %89,26, alegia

Hainbat erakundetan elkartutako herritarren ekimenetik sortutako jarduerak dira, izan ere ezinbestekotzat jotzen dute gazteen arteko mugikortasuna Europako kide izateko sentimendua sustatzeko, eta gaitasunak, trebetasunak eta kompetentziak garatuz sozialki eta profesionalki integratzen laguntzeko.

Hala, diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

1.- Izenburua

GAZTE-EKIPAMENDUEN SAREA TOKI ESPARRUAN BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

Agindua, 2014ko urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko 2014rako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena eta deialdia egiten duena (EHAA, 203 zk., 2014ko urriaren 24koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko diru-laguntzak ematea.

Tokiko erakundeentzako laguntza hauek Gobernu Kontseiluak 2014ko urriaren 28an onartutako Eusko Jaurlaritzaren "III. Gazte Planeko gazteria politika integralaren neurrietako bati erantzuten diote; zehazki, "7.2.1.- Tokian tokiko erakundeei laguntzak ematea, aukerako beste aisialdi-jarduera batzuk antolatzeke, eta gazteek erabiltzen dituzten ekipamenduak hobetzeko" helburuari, euskal gaztediaren egoerari buruzko diagnosian jasotako behar nagusietako bati erantzuteko.

Diruz lagundu daitekeen esparrua: Espezifikoki 12-30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak hartzeko etxebizitzak eraikitzeko, berritzeko, egokitzeko edo handitzeko proiektuak egiteko gaituta dauden profesionalen proiektuen gastuak, bai eta 2014. urtean halako obrak egiteko gastuak edo kostua ere.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Gazte-ekipamenduak sortzeko edo hobetzeko deialdi honen ebaluazio ekonomiko eta soziala zuzenean lotuta dago gazteria politikaren helburu nagusiekin, alegia, gazte guztien arteko aukera berdintasuna bermatzearekin, euren giza ahalmena ahalik eta gehien gara dezaten eta gizartearentzako onura handiak lor ditzaten. Zeharkako emantzipazio politikak ez ezik, politika sektorialak bultzatu behar ditu gazteria politikak, gaztaroan gazteen bizi-baldintzak errazteko eta kualifikatzeko neurriak barne, horien ekimenaren eta sormenaren, informazioaren, mugikortasunaren, aisiaren eta debora librearen alde eginda, besteak beste. Era berean, gazteen parte-hartzea erraztuko da, balio funtsezko gisa; izan ere, ezin da gazteen artean eraginkorra izan beharreko inolako ekintzarik planteatu horiekin kontatu gabe.

Beraz, euskal gazteek toki esparruan dituzten behar eta eskaerei erantzutera dator gazte arloko ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea. Hortaz, kontuan izanda tokiko esparruaren hurbiltasun handiagoa, oro har herritarrentzat eta, kasu honetan, bereziki gazteentzat diren



zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza zuzenari dagokionez, udalek eta bestelako toki erakundeek gazteentzako eskaintzen dituzten ekipamendu eta zerbitzuen araberakoa izango da deialdiaren eraginkortasuna, ekonomia aldetik.

Deialdia 3222-Gazteria aurrekontu programa ekonomikoan dago, lehenengo helburuaren, hirugarren ekintzaren, lehenengo adierazlearen eta hogeit hamar magnitudearen barruan:

HELBURUA: 1. GAZTEEN POLITIKA INTEGRALA BULTZATU

EKINTZA: 3. Gazte-ekipamenduen sarea bultzatu.

ADIERAZLEA: 1. Tokiko erakundeentzako diru-laguntzak, gazte-ekipamenduen sarea indartzeko.

MAGNITUDEA: 20 (Ustez emango diren diru-laguntzak).

26 eskaera erregistratu dira, aurreko deialdian baino bat gehiago. Eskaera egin zuen erakundeetako batek uko egin zion horri izapidetze garaian. Dagokion balorazio fasearen ondoren, 2 eskaera ukatu egin ziren, deialdiaren xedea ez betetzeagatik; beraz, 23 diru-laguntza eman ziren, aurreko deialdian bezalaxe. Guztizko zenbatekoa 289.844 eurokoa izan da, alegia, bideratutako zuzkidura guztia ia suposatzen du ia, 290.000 eurokoa. 2014ko Aurrekontu Orokorren magnitudeari dagokionez, 20 diru-laguntza ematea aurreikusten zuen, eta halaxe bete da.

Hala, emandako diru-laguntzen bidez, Euskadiko gazte-ekipamenduen sarea osatzen duten toki esparruko gazte-ekipamenduen sorrera eta hobetzea sustatzen jarraitzen da. Diruz lagundutako proiektu horiek erabilgarria keta beharrezkoak dira toki esparruan gazteria arloko zerbitzu-politika sustatzeko. Programaren erabilgarritasun horrek gazte-ekipamendu horien sorrera eta hobekuntzari emandako bultzada du oinarri, eta hori gazte politikaren helburu orokorrekin lotuta dago zuzenean, alegia, gazte guztien arteko aukera berdintasuna bermatzearekin, euren giza ahalmena ahalik eta gehien gara dezaten eta gizartearentzako onura handiak lor ditzaten.

Beraz, gazte-ekipamenduen funtzionamenduak eragin sozial handia suposatzen du sustapenari dagokionez, bai eta gazteen garapen pertsonalari eta taldekakoari dagokionez ere; izan ere, toki esparruko gazte-ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea euskal gazteriaren behar eta eskaeren erantzun instituzionalean sartzen da. Beraz, tokiko esparruaren hurbiltasun handiagoa aintzat hartuta, zerbitzu eta ekipamenduen emate zuzenari dagokionez, kasu honetan, gazteei, toki esparruan pixkanaka gazte arloko ekipamendu eta zerbitzuen kopurua eta kalitatea handitzeak gazteen bizi-kalitatea hobetu eta euren aisia eta denbora librea egoki erabil dezaten laguntzen du.



1.- Izenburua

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMAREN BARRUAN LANKIDETZA PROIEKTUAK GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko abenduaren 4koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinek garapen-lankidetzarako entitateei dei egiten baitie Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2014ko «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkez ditzaten.

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko GGKEentzako diru-laguntza da, hiru hilean Euskadiko 100 gazte hartuko dituzten lankidetzako proiektuak aurkez ditzaten. Programaren helburua da Euskadiko gazteak elkartasun eta parte-hartze balioetan sentsibilizatzea. GGKEek 450 euro jasotzen dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen kooperante bakoitzagatik.

45.000,00 €-ko diru-laguntzak eman dira guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren %100, alegia.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

41 lankidetzako proiektu aurkeztu ziren, eta 795 gazte egin zuten eskaera; horietatik 170 hautatu ziren aurrena, eta ondoren, horietatik 93. Gazte horiek lankidetzako proiektuetan hartu dute parte udako hiru hilabeteetan, Ameriketako, Afrikan eta Asian.

Deialdia 3222-Gazteria aurrekontu programa ekonomikoan dago, lehenengo helburuaren, hirugarren ekintzaren, lehenengo adierazlearen eta hogeita magnitudearen barruan:

HELBURUA: GAZTEENTZAKO PROGRAMA ETA ZERBITZUAK SUSTATU ETA GARATZEA

EKINTZA 3: Euskadiko Gazteak Lankidetzako programaren antolaketa.

ADIERAZLEA: 100 parte-hartzaile.

MAGNITUDEA: Kontratua (bidaia-agentzien zerbitzuak). 1

Adierazlean aurreikusitako 100 parte-hartzaileetatik 93 gazte parte hartu dute azkenean, GGKEek eskatutako profilak 93 izan baitira guztira.

Magnitudeari dagokionez, aurrekontu-programan aurreikusitako bidaia-kontratazioa egin da. 1993. urtean sortu zen programa eta, orduetik hona 1.900 gazte hartu dute parte, gutxi gorabehera, eta oso balorazio positiboa izan du beti, arrakasta handia du gazteen artean.

Euskadiko gazteei Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzako programetan parte hartzeko aukera eman nahi diegu, euren esperientziak gure gizartean elkartasun kultura sustatzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko balio izan dezan.

1.- Izenburua

EUSKAL KIROL-FEDERAZIOEN 2014KO KIROL-PROGRAMAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

2.- Araua

2014ko apirilaren 16ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, euskal kirol-federazioen 2014ko kirol-programak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duena. (EHAA, 74. zk, 2014ko apirilaren 16koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza hauen helburua da kirol-federazioak finantzatzea, beren urteroko kirol-programetarako diru-laguntza ez itzulgarriak emanez. 2014an 2.350.000 euroko zuzkidura jarri da diru-laguntzen deialdirako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

47 eskaera aurkeztu ziren, guztiak garaiz eta behar bezalako forman. Ondorioz, Batzorde Kalifikatzaileak balioztatu zituen 47 euskal federazio horien kirol-proiektuak eta guztiei eman zitzaizkien diru-laguntzak. Beraz, deialdiaren emaitzek %100ean osatu zuten ezarritako adierazlearen zifra.

Guztira 2.350.000 € eman ziren, honela banatuta lurraldeen arabera:

Araba	179.506,77 €
Gipuzkoa	1.097.589,60 €
Bizkaia	1.072.903,60 €
<u>EAE guztira</u>	<u>2.350.000,00 €</u>

Diru-laguntza horien bitartez finantzatu ziren euskal federazioen gastu korrontekak, urteko kirol-programetan sartutako jarduera eta lehiaketek eta egiten dituzten izaera administratiboko funtzio publikoek eragindakoak.

Federazio-programen finantzaketari esker, euskal federazioek hainbat ekintza aurrera eraman ahal izan zituzten 2014an:

- Euskadiko txapelketa ofizialak antolatzea.
- Estatuko eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzea.
- Federazio-lizentziak ematea eta tramitatzea.
- Federazioaren esparruan kirol arloko diziplina-ahalmena erabiltzea.
- Federazioaren esparruan erregelamenduak egiteko ahala.
- Kirol-teknifikaziorako programak garatzea.
- Goi-mailako kirolerako programak garatzea.
- Jolas-kirolerako programak garatzea.

Federazio-programetarako finantzaketa publikorik ezean, federazioek ezinezkoa lukete jardunik aurrera eramatea zeren eta federazio gehienek beste diru-iturririk.

1.- Izenburua

**NAZIOARTEKO GOI-MAILAKO KIROL-LEHIAKETETAN PARTE HARTZEA
FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

2.- Araua

2014ko uztailaren 1eko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan parte hartzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezartzen duena. (EHAA, 132. zk, 2014ko uztailaren 14koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

2009an birplanteatu egin zen ordura arteko diru-laguntzen eskema eta bi deialdi egitea erabaki zen: bat EAEko goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen laguntzeko; eta bestea goi-mailako kirol-jardueretan parte hartzen laguntzeko. Bigarren hori da ebaluazio honetan azaltzen dena.

Lerro espezifiko bat sortzeko erabili zen arrazoibidea izan zen nazioarteko kirol-gertaera ofizialetan parte hartzeko laguntzak bakarrik ematea. Horretarako, argi definitu zen deialdi horrentzat zer izango den "ofiziala": Nazioarteko Federazio baten, Europako Federazio baten edo nazioarteko Liga Profesional baten egutegi ofizialean sartutako kirol-lehiaketa oro.

Ondorioz, laguntza-eskaera gutxiago jaso dira baina irizten da efizientzia handiagoz ematen direla diru-laguntzak erreferentziakotzat jotzen diren gertaeretan (hau da, aipatutako entitateetako egutegi ofizialetan sartutakoetan) parte hartzeko.

Eskaerak balioztatzeko lau fase ezarri dira, aurreko deialdiko hiru faseen orde. Era berean, irizpideen puntuazioak ere aldatu egin dira, banaketa berriari egokitzeko. Lehenengoak probaren maila balioztatzen du (gehienez 45 puntu), bigarrenak kirolarien maila (gehienez 10 puntu), hirugarrenak aurrekontuaren inguruko faktoreak (gehienez 25 puntu) eta laugarrenak lehiaketa-kopurua (gehienez 20 puntu).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

23 eskaera aurkeztu ziren, eta 22 laguntza eman. Eskaera bat ez zen onartu lehiaketa ez zelako kategoria absolutukoa.

Beraz, deialdiaren emaitzek %169an osatu zuten ezarritako adierazlearen zifra.(13)

Guztira 340.000,00 € eman dira laguntzetan (2014an 210.800,00 € eta 2015ean 129.200,00 €).

1.- Izenburua

GOI-MAILAKO KIROL-LEHIAKETAK ANTOLATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

2.- Araua

2014ko irailaren 3ko AGINDUA, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean goi-mailako kirol lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak deitu eta nola emango diren arautzen duena. (EHAA, 172. zk, 2013ko irailaren 11koa).

3.- Diru-laguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

2009an birplanteatu egin zen ordura arteko diru-laguntzen eskema eta bi deialdi egitea erabaki zen: bat EAEko goi-mailako kirol-lehiaketetan parte hartzen laguntzeko; eta bestea goi-mailako kirol-jarduerak antolatzen laguntzeko. Bigarren hori da ebaluazio honetan azaltzen dena.

Lerro espezifiko bat sortzeko erabili zen arrazoibidea izan zen nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialak antolatzeko laguntzak bakarrik ematea. Horretarako, argi definitu zen deialdi honentzat zer izango den "ofiziala": Nazioarteko Federazio baten, Europako Federazio baten edo nazioarteko Liga Profesional baten egutegi ofizialean sartutako kirol-lehiaketa oro.

Kontuan izanda lehiaketak eta probak era askotakoak direla, eta zaila izaten dela eskaera bakoitza dagokion lerroan kokatzea, mantendu egiten da diru-laguntzen kategoriak ezabatzea (1. eta 2. lerroak) eta prozedura bakarra eta irizpide bateratuak ezartzen dira.

Helburu nagusia da intentsitate handiagoz eta eksklusiboki laguntzea goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen, izan ere, diru-laguntza xede duten lehiaketak goi-mailakotzat hartzen dira.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

27 eskaera aurkeztu ziren iaz goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdian: bi eskaera ez ziren onartu ez zituztelako betetzen deialdiaren Aginduko 1., 6., 7. eta 9. artikuluetan ezarritako baldintzak eta gainerako 25ei diru-laguntza eman zitzaien.

Beraz, deialdiaren emaitzek %73,52an osatu zuten ezarritako adierazlearen zifra.(34)

Guztira 245.000,00 € eman ziren laguntzetan.

Programa honek inpaktu handia du gizartean. Euskal Autonomia Erkidegoan maila goreneko nazioarteko 25 kirol-lehiaketa antolatzeko sostengua eman da, eta, seguru asko, diru-laguntzen lerro hau gabe, lehiaketa horietako asko ezin izango ziren antolatu. Lehiaketa horiek denek jarduera ekonomikoa sustatzen dute ingurunean eta Euskadi nazioartean ezagutzera ematen dute.

1.- Izenburua

EBPN/ESEP DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia/Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (EBPN/ESEP) garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (EHAA: 2015-6-19 Zk.: 115).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan 2014 urtean EBPN/ESEP garatzeko egitasmoei zuzendutako diru-laguntzak arautu eta deia egitea.

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen egitasmoak:

A multzoa: Plan estrategikoaren diseinua lehenengoz egitea (ESEP), inoiz EBPN plan estrategikorik onartu ez dutenen kasuan.

B multzoa: asia eta kiroletako begirale eta entrenatzaileei hizkuntzak erabiltzeko estrategiak irakasteko jarduerak egitea, bai eta horiekin lotutako prestakuntza materialak ere.

Urte osoan zehar, aisia eta kirol jardunean euskararen erabilera areagotu eta sendotzea helburu duten jarduerak.

Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu dutenak.

Irakaskuntzaren markoan, eskola orduz kanpo garatzen direnak.

C multzoa: mintzapraktika lantzea helburu duten jarduerak (mintzalaguna eta gisakoak).

Euskara eta haren mundua etorkinengana hurbiltzea helburu dutenak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Guztira, 162 toki-erakunde desberdin aurkeztu ziren deialdira. Horietatik, 158 erakundek jaso zuten diru-laguntza multzo batean edo gehiagotan. Honakoa da multzokako banaketa:

Lehenengo multzoko egitasmoak diru kopuru honekin lagundu ziren: 27.710 €. Orotara hiru toki-erakunde aurkeztu eta hirurak lagundu ziren.

Bigarren multzoko egitasmoak diru kopuru honekin lagundu ziren: 1.039.125 €. Orotara 156 toki-erakunde aurkeztu eta, horietatik, 153 toki-erakundek jaso zuten diru-laguntza multzo honi zegozkion egitasmoengatik.

Hirugarren multzoko egitasmoak diru kopuru honekin lagundu ziren: 318.655 €. Orotara 126 toki-erakunde aurkeztu eta, horietatik, 123 toki-entitatek jaso zuten diru-laguntza multzo honi zegozkion egitasmoengatik.

1.- Izenburua

EUSKALGINTZA DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.

2.- Araua

AGINDUA, 2013ko abenduaren 26koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Euskalgintza deialdia).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanean diharduten pertsona fisikoek edo juridiko pribatuek 2014an burututako dituzten egitasmoei zuzenduriko diru-laguntzak arautu eta dei egitea. Honako hauek dira, multzoka emanda, diruz lagun daitezkeen egitasmoak:

A multzoa: Euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak esparru ez formaletan, bereziki aisialdian garatzen direnak (aisialdirako begiraleei zuzendutako prestakuntza eta material-prestakuntza, harreman-sareetan eta aisialdiko kirol ekintzetan euskararen erabilera areagotu eta indartzeko egitasmoak...). Haur eta gazteei zuzendutakoak lehenetsiko dira.

B multzoa: Euskaraz ez dakiten euskal herritarrak eta etorkinak euskarara hurbiltzeko helburua duten jarduerak eta egitasmoak.

C multzoa: Euskararen familia bidezko transmisioa sendotzea helburu duten egitasmoak.

D multzoa: Euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak (gehienez ere, 2 egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

E multzoa: Euskarari zuzenean lotutako alderdiak aztertzea helburu duten jardunaldiak (gehienez ere, 3 egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

F multzoa: Euskalgintzan ibilbide oparoa izateagatik nabarmendutako pertsonak edo elkarteak omentzeko egitasmoak (gehienez ere, 2 egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

G multzoa: Euskaraz landu eta plazaratutako kalitatezko ekarpenak bikaintasunaren irizpideen arabera bultzatu eta babesteko egitasmoak (gehienez ere, egitasmo 1 diruz lagunduko da, puntuazio altuena lortzen duena).

H multzoa: Euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak: irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatze aldera buruturiko jardunak, sariak, lehiaketak, idazleen eta irakurleen arteko topaketak eta literatura gidak (gehienez ere, 10 egitasmo diruz lagunduko dira, puntuazio altuena lortzen dutenak).

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko aurrekontu-programan honako bi helburu hauekin lotzen da Euskaingintza deialdia:

Euskararen erabilera areagotzea gizarte bizitzan eta euskararen garapen sozialean diharduten eragileen lana bultzatzea.

Goian aipatutako helburuak betetzeko ekintza bezala planteatzen da Euskaingintza deialdia.

Magnitudeari dagokionez, 227 egitasmo diruz lagunduko direla aurreikusten da.

Gutxiago izan dira diruz lagundutako egitasmoak. 2014ko deialdira, 213 egitasmo etorri ziren eta horietatik 131 diruz lagundu dira. Deialdiaren diru-baliabideak: 979.200 euro. Bantutako diru-laguntza: 979.200 euro. Deialdiak gizartean duen eragina handia da.



1. Izenburua

HEDABIDEAK DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014. urtean euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza deialdi honen xedea da euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta eraginkortu, bezeroei begira irismen-maila indartuz. Honako hauek dira, multzoka emanda, diruz lagun daitezkeen hedabideak:

A multzoa: helburu nagusia eguneroko informazioa ematea duten idatzizko hedabideak. Egunerokotasunari edota tokikotasunari lotutako idatzizko hedabideak: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua eta udalerrri, eskualde edo lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

- a) Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren egunkariak.
- b) Udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.
- c) Udalerrri, eskualde eta lurralde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

B multzoa: albisteak edo gai hautatuak egunerokotasunetik haragoko sakontasunez lantzen duten idatzizko hedabideak: euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...).

C multzoa: zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren lizentzien jabe izanik, zati batean edo osorik euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak.

D multzoa: zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren lizentzien jabe izanik, zati batean edo osorik euskaraz emititzen duten telebistak.

E multzoa: Internet bidezko hedabideak:

- a) Euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak.
- b) Zati batean edo osorik euskaraz ari diren irratiak.
- c) Zati batean edo osorik euskaraz ari diren telebistak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko aurrekontuen programan honako bi helburu hauekin lotzen da Hedabideak deialdia: Euskara hedabideetan eta euskararen garapen sozialean diharduten eragileen lana bultzatzea. Goian aipatutako helburuak betetzeko ekintza bezala planteatzen da Hedabideak deialdia.

Magnitudeari dagokionez, 140 egitasmo diruz lagunduko direla aurreikusten da.

2014ko Hedabideak deialdira 137 egitasmo etorri ziren eta horietatik 122 diruz lagundu dira.

Deialdiaren diru-baliabideak: 4.875.000 euro.

Bantutako diru-laguntza: 4.875.000 euro.

Deialdiak duen eragina handia da.



1. Izenburua

EUSKARA GAZTELANIAZKO HEDABIDEETAN DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitaletan eta Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta deia egitea. Honako hauek dira diruz lagun daitezkeen egitasmoak:

A multzoa: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako idatzizko egunkarien edizio digitalak.

B multzoa: Internet bidez notiziak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko aurrekontu-programan honako helburu honekin lotzen da Euskara gaztelaniazko hedabideetan deialdia: *Euskara hedabideetan*.

Goian aipatutako helburua betetzeko ekintza bezala planteatzen da deialdi hau: *Euskararen presentzia hedabideetan oro har bultzatzeko eta euskarazko hedabideak sendotzeko diru-laguntzen deialdia*.

Magnitudeari dagokionez, 140 egitasmo diruz lagunduko direla aurreikusten da. Magnitude hori Euskarazko Hedabideak deialdiari eta oraingo honi dagokie.

Euskara Gaztelaniazko Hedabideetan deialdi honetara etorritako egitasmoak 7 izan dira eta horietatik 6 diru lagundu dira.

Deialdiaren diru-baliabideak: 180.000 euro.

Banatutako diru-laguntza: 85.350 euro. A multzoari dagokionez, Ebazpena eman ostean egindako jarduera diruz lagundu zen, ez urte osoari zegokiona. Hizkuntza Politikarako sailburuordearen ebazpenak 2014ko urriaren 10eko data du.

Lehenengoz argitaratu da diru-laguntza hau 2014an. Oso ondo hartua izan da eta espero da bere eragina urte batetik bestera handitzea.

1.- Izenburua

EUSKARA TEKNOLOGIA BERRIETAN/EUSKERA EN NUEVAS TECNOLOGÍAS (IKT)

2.- Araua

AGINDUA 2014ko ekainaren 4koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014ean Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (EHAA, 2014ko ekainaren 18koa, 114 zk.)

3.- Diru-laguntza Programaren Azalpen Laburra eta Helburuak

– Euskarazko atari edo webguneak:

ET1.– Euskarazko atari edo webgune berriak sortzea

ET2.– Aurretik abian dauden sareko hedabideen webguneetan funtzionalitate berriak gehitzea eta webgune horiek gailu mugikorretarako egokitzea

ET3.– Aurretik abian dauden euskarazko gainontzeko webguneak zerbitzu, funtzionalitate eta eduki berriz hornitzea eta hobetzea, hala nola webgune horiek gailu mugikorretarako egokitzea.

– Softwarea euskaraz sortzea edota euskarara lokalizatzea:

ET4.– Softwarea euskaraz sortzea edota euskarara lokalizatzea

Gailu mugikorretarako aplikazioak euskaraz sortzea edota euskarara lokalizatzea.

Ordenagailuetan soilik erabil daitezkeen aplikazioak euskaraz sortzea edota lokalizatzea..

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014. urtean 108 egitasmo diruz lagundu da eta horren eragina bereziki sarean diren euskarazko edukietan antzeman da. Batetik lehendik ziren web guneak edo atalak eguneratu dira, eta bestetik euskarazko eduki berriak sortu dira. Aipatu behar da bereziki Internet bidezko aplikazioak eta eskuko telefonoetan erabiltzeko direnak ugaritu direla. Hona hemen datu adierazgarriak:

- Deialdira etorritako eskaerak: 225
- Atzera egin duten eskatzaileak: 7
- Bazterrean utzitako egitasmoak: 13
- Lehiaketara pasatako egitasmoak: 205
- Diruz lagundutako egitasmoak: 108
- Aurkeztutako aurrekontua: 5.053.685,144 euro
- Eskatutakoa: 2.286.478,5 euro
- Esleitutakoa: 806.926 euro

2014ko aurrekontu memorian hau jaso zen:

9. EUSKARA IKTetan

1. IKTetan euskarazko edukiak sustatzeko dirulaguntzen deialdia egitea.

Magnitudea: 300 (eskaera).

1. Izenburua

EUSKARA ENTITATE PRIBATUETAN/EUSKERA EN SECTOR PRIVADO (LANHITZ)

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2014an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak (LANHITZ) ematea arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea, entitate pribatuek EAEn dituzten lantokietan 2014an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea da (LanHitz).

Honako hauek dira laguntza-mota honetara bil daitezkeen jarduera-motak:

Lehen euskara-planaren diseinua

2014ko kudeaketa-plana

Interesa duen pertsonak edo entitateak lehen euskara-planaren diseinurako laguntza eska dezake lehendik laguntzarik jaso ez badu, ez diseinurako, ez kudeaketa-planerako.

Lehen euskara-planaren diseinua aurkeztuz gero, urteko kudeaketa-plana ere aurkeztu beharko du pertsona edo entitate eskatzaileak. Kudeaketa-plana garatzeko ekintzek 2014ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean egindakoak izan behar dute.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Programari esker, 162 egitasmo diruz lagundu dira. Hona hemen datu adierazgarrienak:

- Deialdira etorritako eskaerak: 180
- Dokumentazioa osatu gabeko eskaerak: 1
- Lehiaketa fasera pasatakoak: 179
- Balorazio fasearen ostean puntuazio minimora iritsi ez direnak: 13
- Hasierako esleipena 2.000 eurotik beherakoa izateagatik: 4
- Lehen euskara-planaren diseinurako eskabideak: 20
- Lehen euskara-planaren diseinurako eta kudeaketa plana garatzeko eskabideak: 24
- Kudeaketa-plana garatzeko eskabideak: 182
- Diruz lagundutako egitasmoak: 162
- Aurkeztutako aurrekontua: 13.496.874,55 euro
- Eskatutakoa: 5.389.337,01 euro
- Esleitutakoa: 1.944.800 euro

2014ko memorian hau jaso zen:

7. ALOR SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

1. LanHitz programaren markoan, enpresetan euskararen erabilera diruz laguntzeko deialdia egitea. Magnitudea 170